

IKASTETXEKO HEZKUNTZA PROIEKTUA (IHP) EGITEKO

—
GIDA OPERATIBOA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



Diseinua eta maketazioa: Hik Hasi

Ilustrazioak: Paula Estévez

Argitaratzailea: Hezkuntza saila,

Eusko Jaurlaritza

Donostia kalea, 1

01010 Gasteiz

Edizioa

1.a, 2026ko urtarila

© Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioa. Hezkuntza saila

<https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/departamento-educacion/>

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

AURKIBIDEA



1. IHPa EGITEKO PROZESU PARTE-HARTZAILEA — 7

PROZESUAREN DISEINUA:
PLANIFIKAZIO ETA GARAPEN FASEA — 8

IKASTETXEAREN MISIOA, BISIOA,
BALIOAK ETA HELBURUAK — 18



2. IKASTETXEKO HEZKUNTZA PROIEKTUAREN DIMENTSIOAK ETA ARDATZAK — 23

ERANTZUKIDETASUNA — 24

1. ARDATZA: LIDERGO
PEDAGOGIKO PARTEKATUA

2. ARDATZA: HEZKUNTZA-KOMUNITATEAK
ETA LANKIDETZA-SAREAK

HEZKUNTZA BIKAINTRASUNA ETA IKASLEEN ARRAKASTA — 28

3. ARDATZA: EUSKARA, ELEANIZTRASUNA
ETA KULTURA-ANIZTRASUNA

4. ARDATZA: IRAKATSI ETA IKASTEKO PROZESUA

5. ARDATZA: IRAKASLEAK ERALDAKETA
PROZESUAREN ARDATZ GISA

EKITATEA ETA GIZARTE-KOHESIOA — 90

6. ARDATZA: EKITATEA ETA INKLUSIOA

7. ARDATZA: BIZIKIDETZA, HEZKIDETZA
ETA ONGIZATE SOZIOEMOZIONALA

ETENGABEKO HOBEKUNTZA ETA IRAUNKORTASUNA — 94

8. ARDATZA: DIGITALIZAZIOA
ETA JASANGARRITASUNA

9. ARDATZA: NAZIOARTEKOTZEA

10. ARDATZA: EBALUAZIOAREN
ETA BERRIKUNTZAREN KULTURA



**3. IHP-AREN BERRIKUSKETA,
DOIKUNTZA ETA KOMUNIKAZIOA — 101**

IHPa egiteko prozesu parte-hartzailea

①

Prozesuaren diseinua: planifikazio eta garapen fasea

—

NOLA SORTU IKASTETXEKO
HEZKUNTZA PROIEKTUA?

Talde eragilea sortu



T.O.1 taula: Talde Eragilea

IZEN-ABIZENAK / PROFILA		ESTAMENTUA
Zuzendaria	ZUZENDARITZA	
Ikasketa-burua		
Idazkaria		
Berrikuntza Arduraduna		
Proiektuen arduradunak	IRAKASLEAK	
Guraso Elkartearen ordezkariak	FAMILIAK	
Ikasle ordezkariak	IKASLEAK	
Langile ez-irakasleen ordezkaria	LANGILE EZ-IRAKASLEAK	
Udaletxeko ordezkaria	UDALA	

Komunikazio-prozesua

T.O.2 taula: Komunikazio-prozesua

(Ikastetxe bakoitzak erabaki beharko du zein zehaztasun mailan garatuko duen ZER komunikazioa NORI bideratua dagoen kontuan hartuta. Gainera, NOLA, NOIZ ETA NON zehaztu beharko da.)

KOMUNIKAZIO-PROZESUA							
Zer	IHPren egite edo berritze prozesuaren jakinarazpena. IHPa zer eta zertarako den jakinaraztea. IHPren garapenaren prozesuaren jakinarazpena (Talde Eragilearen egitura, faseak, parte-hartze plana) IHPa aurkeztu komunitate osoari.						
Zertarako	Hezkuntza Komunitatearen inplikazioa lortzeko. Interes- taldeekin ditugun harremanak zaintzeko.						
Nork	Talde Eragileak						
Nori	INTERES-TALDEAK						
	ESKOLA-KOMUNITATEA				BESTE INTERES-TALDEAK		
	Irakasleak	Ez irakasleak	Ikasleak	Familiak	Udala	Herriko hainbat eragile	Hezkuntzaren hainbat eragile
Nola	Aurrez-aurre Online	Aurrez-aurre Online	Aurrez-aurre Online	Aurrez-aurre Online	Aurrez-aurre Online	Aurrez-aurre Online	Aurrez-aurre Online
Noiz	2025/10/1	2025/10/1	2025/10/1	2025/10/1	2025/10/1	2025/10/1	2025/10/1
Non	Eskolan	Eskolan	Eskolan	Eskolan	Eskolan	Eskolan	Eskolan

Parte-hartze prozesua

T.O.3 taula: Parte-hartze prozesua

(Ikastetxe bakoitzak bere testuinguruaren arabera IHPa osatzeko partehartze prozeduraren markoa eraiki beharko du.)

FASEA	ARDURADUNA	PARTE-HARTZAILEA	JARDUERA	DENBORALIZAZIOA
Aurkezpena	Zuzendaritza Taldea	▪ OOG ▪ Hezkuntza Komunitatea Estamentuak (Klaustroa, Langile ez, irakasleak, Aldundia, Udala, Herri talde eragileak)	▪ Zeregina aurkeztu-iragarri: IHPa eguneratzea, berrikustea eta lantzea.	1. hiru hilekoa
Sentsibilizazioa	Zuzendaritza Taldea	▪ Talde Eragilea	▪ Sentsibilizazio-lana: bilerak, hitzaldiak, gutunak, zirkularrak ▪ Talde Eragilea sortzea	
Plangintza	Talde Eragilea	▪ Talde Eragilea	▪ Epeak jarri ▪ Zereginak banatu ▪ Ardurak esleitu ▪ Prozedurak diseinatu (Nork, Zer, Nola, Noiz). Kontuan izan ikastetxe bakoitzaren erritmoa eta berezko kultura.	
Garapena	Talde Eragilea Zereginen arduradunak	▪ Zereginen taldeak	▪ Datuak, informazioa... bilatzea. ▪ Analisiak, eztabaidak, proposamenak... ▪ Proposamenak ordenatu eta lehenetsi. ▪ Ondorioak atera eta erabakiak hartu. ▪ Lehenengo zirriborroa idatzi	2. eta 3. hiru hilekoak
Onarpena	Organo Eskuduna (OOG)	▪ Hezkuntza Komunitateko Estamenduak	▪ Erabakiak hartzeko epeak finkatu. ▪ Ekarpenak aurkeztu. ▪ Onartu.	3. hiru hilekoa
Zabalkundea	Talde Eragilea	▪ Talde Eragilea	▪ Epeak eta zabaltzeko prozedura finkatu.	

Kronograma

T.O.4 taula: Kronograma

	IRAILA	URRIA	AZAROA	ABENDUA	URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA	APIRILA	MAIATZA	EKAINA
Aurkezpena										
Sentsibiliza-zioa										
Plangintza										
Garapena										
Onarpena										
Zabalkundea										

Ikastetxearen testuinguruaren analisia egiteko prozesua

T.O.5 taula: Egungo markoaren berrikuspena

(Analisia egiteko proposatzen diren dokumentuak ez dira derrigorrezkoak. Ikastetxeari lagungarri gerta dakizkionak lehenetsi beharko dira.)

EGUNGO MARKOAREN ERREBISIO JASOKETA	DATA (azken errebisioa)	DATUAK ETA INFORMAZIO ESANGURATSUA	ZEREGINA
Euskal Eskola publikoa eraldatzeko I. Plan estrategikoa (2025-2028)			
Zuzendaritza Proiektua	2025/10/01	Adibidea: ez da kontuan hartu Hezkuntza Proiektuaren helburu bat Zuzendaritza Proiektuan; ondorioz, ez da landu.	Zeregina eguneratu eta dokumentuan arteko koherentzia zaindu dagozkion aldaketak eginez.
AJA	2025/10/03	Kultura aniztasuna ugaritu da.	Barne araudia berritzea komeni da.
Hizkuntza Proiektua	2025/10/03	Kultura aniztasuna ugaritu da.	Mantendu eta indargune bezala kontuan hartu.
Ikastetxeko Digitalizazio Proiektua (IPD)	...	...	...

Barne analisiaren datu bilketa egiteko prozedura

T.O.6 taula: Barne analisia

(Barne analisia egiteko proposatzen diren alderdiek gida gisa balio izatea dute helburu, ikastetxearen testuinguruaren arabera alda daitezke.)

BARNE EGOERAREN ANALISIA	NORK (izena)	NOIZKO (data)	NOLA (Tresna)
Barne kudeaketa	XXXX	2025/11/25	Konpetentzietan oinarritutako Zuzendaritza Taldearen autoebaluazioa: emaitzak
Familia eta ikasleen beharrak eta espektatibak.	XXXX	2025/11/25	Gogobetetze inkesten emaitzak
Irakasle eta ez-irakasleen beharrak eta espektatibak.	XXXX	2025/11/25	Gogobetetze inkesten emaitzak
Aurreko ikasturteetako emaitzak (akademikoak eta ez akademikoak)	XXXX	2025/11/25	Emaitzen jarraipena; akademikoak, ez akademikoak (ekonomiko-finantzarioak, langileen ingurukoak, baliabideen ingurukoak,...) ISEK...
Ebaluazio diagnostikoare emaitzak	XXXX	2025/11/25	ED txostena ED batzordearen balorazioa
Baliabideen kudeaketaren balorazioa (orduak, materialak, ardu-ren banaketa, dirua, teknologia baliabideak, gela hornidurak, ...).	XXXX	2025/11/25	Urteko Plana eta Memoria Batzordeen memoriak Gogobetetze inkestak Aktak
Ikuskaritzatik jasotako balorazioak eta hobekuntza proposamenak.	XXXX	2025/11/25	Urteko Plana Memoria

Kanpo analisiaren datu bilketa egiteko prozedura



T.O.7: Kanpo analisia eta eragina

(Kanpo analisia egiteko proposatzen diren alderdiek gida gisa balio izatea dute helburu, ikastetxearen testuinguruaren arabera alda daitezke.)

KANPO EGOERAREN ANALISIA	NORK (izena)	NOIZKO (data)	NOLA (balizko tresnak)
Biztanleriaren bilakaera, migrazioa...	XXXX	2025/11/25	EUSTAT
Udalerriaren testuinguru sozio-ekonomikoa	XXXX	2025/11/25	EUSTAT UDAL web orria
Udalerriaren testuinguru soziolinguistikoa	XXXX	2025/11/25	EUSTAT UDAL web orria Soziolinguistika klusterra
Hezkuntza Sailak indarrean dituen lan ildoak	XXXX	2025/11/25	Hezkuntza Sailaren web orria Saliburutzaren ikasturte hasierako aurkezpena Ikasturte Hasierako ebazpena Proiektu deialdiak ...
Berritzeguneetatik, Ikuskaritzatik, edota beste laguntza zerbitzuetatik eratorritako lan ildoak, orientabideak, laguntzak, esku-hartzeak...	XXXX	2025/11/25	Ikasturte hasierako aurkezpenak Mintegiak Web orriak (berritzeguneak, ikuskaritza) Lan saioak ...
Baliabideak	XXXX	2025/11/25	RPT/LZ eta bestelakoak (Planifikazio bilera (DBH, BATX) eta banaketa (LH) Finantzazio notifikazioak eta ebazpenak
Kanpotik datozen berrikuntza, metodologia edo aldaketak: teknologia berriak...	XXXX	2025/11/25	Proiektuak. Kongresuak, Jardunaldiak Sare-sozialak Berritzegunetako mintegiak, Hezkuntza Sailak finkatutako lan-taldeak ...
Interes talde desberdinen behar, interes eta ekarpenak (Udaleko Sail ezberdinak, Aldundia, Herri Talde Eragileak...)	XXXX	2025/11/25	Bilerak Inkestak Txostenak ...
Inguruko beste ikastetxeen errealitatea, lehiakideen egoera...	XXXX	2025/11/25	Bilerak Inkestak Txostenak ...
Hornitzaileekin harremana, egoera, beharrak eta espektatibak	XXXX	2025/11/25	Bilerak, kongresuak, ekitaldiak, formazio saioak

T.O.8 taulak: Kanpo analisia eta eragina

KANPO EGOERAREN ANALISIA	DATUAK eta INFORMAZIO ESANGURATSUA	IKASTETXEAN DUEN ERAGINA eta ZEREGINA
Biztanleriaren bilakaera, migrazioa...	Adibidea: Gure herrian inmigrazioa% 12koa da	Errealitatera egokitu beharra: Antolakuntza Hizkuntza Proiektua Bizikidetza Harrera Eskaintza ...
Udalerriaren testuinguru sozio-ekonomikoa	Adibidea: Herrian zegoen lantegi handiena itxi egin da eta langabezi tasa handitu da % 10ean	Beka eskaera Jangela zerbitzua IKE (Ikasgelaz Kanpoko Ekintzak eta Osagarriak) Bizikidetza Matrikula
Udalerriaren testuinguru soziolinguistikoa	Adibidea: Euskararen eza- gutza % 85 da eta erabilera % 45	Hizkuntza Plan eta Normalkuntza Proiektua Udal-Ikastetxeen arteko lankidetza ...
Hezkuntza Sailak indarrean dituen lan ildoak.	Adibidea: Euskara ardatz iza- nik eleaniztasunaren aldeko	Hizkuntza Proiektua, HTII, Irakurketa Plana... Formazio Plana
Berritzeguneetatik, Ikuskaritzatik, edota beste laguntza zerbitzuetatik eratorritako lan ildoak, orientabi- deak, laguntzak, esku-hartzeak...	Adibidea: Ikaslab ikastetxe- ko ezinbesteko baliabidea bihurtu da.	Eremuak, proiektuak, ordutegiak, ikas- egoerak... Ikaslabek zehazten dituen ezaugarri eta beharren arabera egokitu dira.
Baliabideak	Adibidea: Baliabide teknolo- giko baten aldeko apustua egin du Hezkuntza Sailak	Ikaste-irakaste prozesuaren metodologia Kudeaketa Formazio Plana
Kanpotik datozen berrikuntza, metodologia edo aldaketak: teknologia berriak, ...	Datuak hartzeko aukerazko iturriak	Datuak hartzeko aukerazko iturriak
Interes talde desberdinen behar, interes eta ekarpenak (Udaleko Sail ezberdinak, Aldundia, Herri Talde Eragileak...)	Datuak hartzeko aukerazko iturriak	Datuak hartzeko aukerazko iturriak
Inguruko beste ikastetxeen errealitatea, lehiakideen egoera...	Datuak hartzeko aukerazko iturriak	Datuak hartzeko aukerazko iturriak

Hobetzeko alderdien eta Alderdi positiboen azterketatik eratorritako ondorioak

T.O.9 *Diagnosia eta hobekuntza-proposamenak*

ALDERDI POSITIBOAK	HOBETZEKO ALDERDIAK
Ikastetxeko proiektuarekiko pertenezia sentimendua duen klaustroa	Jaiotza tasa jaitsiera
Hezkuntza Publikoaren baliabide eskaintza	Ikastetxe pribatu-itunpekoen konpetentzia
Udalaren inplikazio eta baliabideak	Familien inplikazio falta
Euskararen erabilera altua	Pertenezia sentimendua ez duen komunitatea
Irakasle-ikasle ratio txikia	Zaugarritasun indize altua

T.O.10 *taulak: Diagnosia eta hobekuntza-proposamenak*

10.1 DATUEN INTERPRETAZIOA: Gure ikasleen errendimendu akademikoa ezberdina da hezkuntza-mailaren arabera, eta azken ikasturtean maila ezberdinetan izandako sustapen-indizeetan ikus daiteke hori (DBHn % 75, batxilergoan, % 62, erdi-mailako zikloetan % 82 eta goi-mailako zikloetan % 92) 10.1 HOBEKUNTZA PROPOSAMENA: DBHko eta Batxilergoko emaitzak hobetzen saiatu behar dugu, metodologia berriak, curriculum-egokitzapenak eta helburu argi eta partekatuak ezarriz tutoretza-ekintzatan). 10.2 DATUEN INTERPRETAZIOA: Oro har, esan daiteke lan giroa atsegina dela ikastetxean. Inkesta zehatzik egin ez bada ere, aldi batez gurean aritu diren langileek adierazi dute lan ona egiten dela, koordinazioa egokia dela eta harreraren antolaketa zaindua dela. Hala ere, zenbait kasutan tentsio edo estutasun moduko bat nabaritzen dute, izan ere, nahiz eta helburuak argi izan, beti ez baita posible dena behar bezala aurrera eramatea. 10.2 HOBEKUNTZA PROPOSAMENA: Nabarmendu beharreko ideia nagusia da lan ona egiten ari garela, baina beti dagoela hobekuntzarako tarterik. Funtsezkoa da segurtasuna eta konfiantza bermatzea lantaldearen baitan, eta, era berean, egindako ahaleginak eta lortutako emaitzak baloratuz, gogobetetze-sentsazioa sortzea komeni da.

Ikastetxearen nortasunaren diseinua: misioa, bisioa, balioak eta asmoa

—

NOLA ERATU IKASTETXEAREN NORTASUNA?

Misioa

T.O.11 taula: Misioa

Atal honetan honelako adierazpenak jar daitezke:

- Ikastetxearen zergatia adierazten du.
- Hezkuntza-lana nori zuzentzen zaion eta nola ulertzen den zehazten du.
- Ikasleen garapenari eta gizartearekiko konpromisoari begiratzen dio.
- Beste eragileekin —familia, auzoa, erakundeak— duen harremana azaltzen du.

Adibidez:

MISIOA: Gure ikastetxea ikaskuntza inklusibo, euskaldun eta eraldatzailearen gunea da, non ikasle guztiak, jatorria edo gaitasunak edozein direla ere, garapen pertsonal, sozial eta akademikorako aukera berdinetan hezten diren, elkarbizitza eta aniztasuna errespetatuz.

Bisioa

T.O.12 taula: Bisioa

Atal honetan honelako adierazpenak jar daitezke:

- Etorkizuneko helmuga desiragarria deskribatzen du.
- Eraldaketa-izaera du, ikastetxearen hobekuntza eta hazkundera bultzatuz.
- Misioarekin, balioekin eta estrategiarekin koherentziaz lotzen da.
- Ikastetxeko kide guztientzat inspirazio eta motibazio iturri izan behar du.

Adibidez:

BISIOA: Erreferentea izatea auzoko kohesioa eta berdintasuna sustatzen dituen eskola modura, non ikasleek beren buruarekiko konfiantzaz, euskaraz eta modu aktiboan parte hartzen duten gizarte bidezkoago baten eraikuntzan.

Balioak

T.O.13 taula: Balioak

Atal honetan honelako adierazpenak jar daitezke:

- Ikastetxearen kultura eta nortasuna islatzen dute.
- Erabaki pedagogikoetan, harremanetan eta antolaketan eragina dute.
- Misioa eta bisioa betetzeko funtsezko orientazioa eskaintzen dute.
- Ikasleen garapen pertsonal eta soziala sustatzen dute, elkarbizitza eta ongizatea indartuz.
- Hezkuntza komunitateko kide guztien konpromisoa eta kohesioa indartzen dituzte.

Adibidez:

BALIOAK: Aniztasunaren balioa: Ikasle ororen ezberdintasunak aberastasun gisa ulertzen ditugu, eta begirunea, inklusioa eta aukera-berdintasuna sustatzen ditugu gure harreman eta jardueraren guztietan.

Asmoa

T.O.14 taula: Asmoa

Atal honetan honelako adierazpenak jar daitezke:

- Ikastetxearen eguneroko jardunaren zentzua eta norabidea ematen du.
- Misioa praktikara eramateko nahia eta konpromisoa adierazten du.
- Ikasleen garapen integrala eta gizartean parte hartze aktiboa sustatzen ditu.
- Hezkuntza-jardueraren guztiak lerrokatzeko eta kohesionatzeko erreferentzia da.
- Komunitate osoarentzat ulergarria, partekatua eta eskuragarria izan behar du.

Adibidez:

ASMOA: Gure asmoa da ikasle guztiak bizitzarako prest heztea: euskara eta beste hizkuntzak erabiliz, gizartean arduraz parte hartzeko, ikasten jarraitzeko eta beren burua eraikitzen jarraitzeko gaitasunarekin.

HELBURUA ZEHAZTUZ

1. Ikasle guztien inklusioa eta garapen osoa bermatzea

Ikasle guztiek ikaskuntza eta bizipen esperientzia aberasgarria izatea, laguntza pertsonalizatuaren, metodologia anitzen eta ikaskuntza kooperatiboaren bidez, ikasleen beharrei egokitutako erantzunak eskainiz, bidezko gunea bihurtzeko.

2. Euskararen eta hizkuntza-aniztasunaren kultura sendotzea

Euskara ikastetxeko hizkuntza ardatz bihurtzea, euskararen erabilera formala eta informala sustatuz, hizkuntza-ohiturak indartuz eta hizkuntza desberdinekiko errespetua bultzatuz. Ikasleek komunikazio eleanitza eta identitate euskalduna uztartzeko.

3. Gizarte bidezko eta kohesionatu baten aldeko konpromisoa sustatzea

Ikasleen partaidetza eta gizarte-erantzukizuna garatzea, elkarlaneko proiektu sozialen bidez, balio demokratikoak, elkartasuna eta berdintasuna praktikan jarritz, ikasle konprometituak hezteko eta gizarte bidezkoago bat eraikitzeko.





IHParen dimentsioak eta ardatzak

②



Erantzukide- tasuna

Erantzukidetasunak esan nahi du Euskal Eskola Publikoa eraldatzea ahalegin partekatua dela administrazioaren, zuzendaritza-taldeen, irakasleen, ikasleen, familien eta inguruko eragileen artean. Gakoa da lidergo pedagogiko partekatua artikulatzea eta lankidetzak indartzea, ikastetxe bakoitzak aurrera egin dezan.

1. Areatza: Lidergo pedagogiko partekatua

G.O.1 Lidergo pedagogiko partekatua

Hausnartzeko galdera posibleak:

Antolamendu eta kudeaketa pedagogikoan irizpide partekatuak finkatzea

Ikastetxearen egitura eta antolamendua

- Zein espaziotan eta mekanismoren bidez egiten da irakasleen eta zuzendaritza-taldearen arteko koordinazio pedagogikoa?
- Nola bermatzen da organo ezberdinen (Zuzendaritza Taldea, Eskola Kontseilua, Klaustroa...) arteko koordinazioa eta koherentzia?
- Zein modutan parte hartzen du komunitate osoak (irakasleak, familiak, ikasleak) erabaki horietan?
- Zein faktore hartu behar dira kontuan ikasleen taldeak osatzerakoan, oreka eta inklusioa bermatzeko?
- Zein irizpide erabil daitezke tutoretzak banatzeko modu bidezko eta eraginkorren?
- Nola eragin dezake irakasleen esperientziak eta formazioak tutoretza-lanaren kalitatean?
- Zer estrategiak erabil daitezke tutoreek familien parte-hartzea eta konfiantza sendotzeko?
- Zer elementu dira funtsezkoak koordinazio pedagogiko eraginkorra lortzeko?
- Nola antola daiteke informazio-fluxua gardentasuna bermatzeko?
- Zein mekanismo erabil daitezke arduren banaketa eta parte-hartze aktiboa sustatzeko?

Ikastetxearen kudeaketa pedagogikoa

- Nola parte hartzen dute hezkuntza-komunitateko kide guztiek (irakasle, administrazio-zerbitzueta langile, BeA, familie...) koordinazio-egituretan?
- Zein egitura edo dinamikek bermatzen dute gaur egun barne-kohesioa eta koordinazioa (adib. batzordeak, koordinatzaileak, klaustroko espazioak...)?

Hona hemen zenbait adibide:

Prozesuen bidezko kudeaketa

Prozesuka lan egitea, kudeaketarako metodologia bat da, ikastetxeko jarduerak modu efizienteagoan eta koherenteagoan kudeatzeko aukera ematen duena, hezkuntza-helburuekin eta komunitatearen beharrek inarokaturata. Funtsezko prozesuak identifikatu, diseinatu, inplementatu eta hobetzean, ikastetxeek beren baliabideak optimizatu, hezkuntzaren kalitatea hobetu eta etengabeko hobekuntzaren kultura sustatu dezakete. Ikuspegi horrek irakasleei eta irakasle ez diren langileei mesede egiteaz gain, ikasleen ikaskuntzan eta ongizatean ere eragin positiboa du.

PROZESUKA LAN EGITEAREN...	
EZAUGARRIAK	ONURAK
▪ Ikuspegi sistemikoa	▪ Lana fokatzea
▪ Ikuspegi sistemikoa	▪ Hobekuntzaren bidea marraztea
▪ Elkarlanean parte hartzea	▪ Lanaren Koherentzia
▪ Etengabeko hobekuntza	▪ Gardentasuna
▪ Dokumentazioa eta estandarizazioa	▪ Berrikuntzari begira

Prozesuetan oinarritutako kudeaketan gehiago sakontzeko [Kalitatea Hezkuntzan](#)  sarean begiratu.

Kudeaketa Aurreratua

Eredu honek etengabeko hobekuntzara, berrikuntzara eta jasangarritasunera bideratutako esko-la-antolaketa sustatzen du. Lidergo partekatua, pertsonen inplikazioa, emaitzetarako orientazioa eta ingurunearekiko harremanen printzipioetan oinarritzen da. Ikuspegi honek ikastetxeari bere prozesuak sistematikoki aztertzeko eta hobetzeko arloak detektatzeko aukera ematen dio, horrela estrategian oinarritutako erabakiak hartu ditzake. Eredu honek bultzatzen dituen lan egitearen metodologiak, erantzukidetasuna eta antolaketa ikaskuntzaren kultura bultzatzen du.

Kudeaketa aurreratuan gehiago sakontzeko [Kalitatea Hezkuntzan](#)  sarera hurbildu.

Zuzendaritza-taldeen lidergo pedagogikoa indartzea

Erantzukidetasuna bultzatzea

- Zein dira arduren eta erantzukizunen banaketa kudeatzeko tresna edo prozedura nagusiak gure zentroan?
- Nola banatzen dira zereginak pertsonen talentu, gaitasun eta motibazioaren arabera?
- Nola bermatzen da lanaren oreka eta ez dela gainkargatzen pertsona beraren gain?
- Zein mekanismo erabiltzen dira ardura eta zeregin berriak proposatzeko edo hautatzeko?

Zuzendaritza-taldeen trantsizioaren aurreikuspena eta jarraikortasuna

- Zein prozedura ditu ikastetxeak lidergoaren jarraitutasuna eta erreleboa planifikatzeko.
- Nola planifikatzen dira zuzendaritza-taldearen ordezkarien progresioa eta ezagutzaren transmisioa?
- Nola bermatzen da zuzendaritza berriak aurreko proiektuaren

2. Ardatza: Hezkuntza-komunitateak eta lankidetza-sareak

 G.O.2 taula: Hezkuntza-komunitatea eta lankidetza-sareak

Hezkuntza-komunitatea

Ikastetxearen egitura eta antolamendua

- Zein neurritan ezagutzen du hezkuntza-komunitateak Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP) eta haren ildo estrategikoak?
- Zein jarduera edo espaziotan parte hartu dute irakasleek, ikasleek eta familiek proiektua diseinatu eta eguneratzeko?
- Ba al dago parte-hartze egituratu eta jarraituaren prozedura definiturik (inkestak, ardatz-taldeak, eztabaida-foroak...)?
- Nola biltzen dira komunitatearen ekarpenak, eta nola jasotzen dira erabaki eta dokumentuetan?
- Zein mekanismo daude jasotako iritziei itzulera eta gardentasuna emateko?
- Nola ebaluatzen da parte-hartze egituratu horien eraginkortasuna eta eragina IHParen hobekuntzan?
- Nola ziurtatzen da familia guztiek ikasturte hasieran ezagutzen dutela IHPa, Zuzendaritza Proiektua eta araudi nagusiak?
- Zein dira familien eta ikastetxearen arteko komunikazio-bide erregular eta irekiak?
- Zein neurri hartzen dira parte-hartze inklusiboa errazteko (ordutegi malguak, hizkuntza egokitua, bitartekariak...)?
- Nola ordezkatzen da familien aniztasuna Eskola Kontseiluan eta gurasoen egituretan?

Lankidetza-sareak

- Zein harreman du ikastetxeak tokiko erakundeekin (udalak, gizarte-zerbitzuak, osasun-zentroak, enpresak, elkarteak...)?
- Zein proiektu partekatu garatzen dira ingurune komunitarioan (osasuna, kultura, ingurumen-hezkuntza, lanbide-orientazioa...)?
- Nola uztartzen dira kolaborazio horiek IHParen ildo estrategikoekin?
- Zein neurritan sustatzen du gure ikastetxeak kolaborazioaren eta elkarri laguntzearen kultura beste zentro publikoekin?
- Zein esperientzia edo jardunbide egoki partekatu dira azken urteetan sare publikoko beste ikastetxeekin?
- Zein mekanismo edo egitura daude ezarrita esperientzia trukerako (bilerak, foroak, jardunaldiak, praktika komunitateak...)?
 - Zein modutan dago gure ikastetxea Hezkuntza Sailak bultzatutako sare edo programetan integratuta (adib. Kalitatea Hezkuntzan, PKP, STEAM Euskadi...)?
 - Zein harreman edo proiektu partekatzen dira unibertsitateekin (irakasleen prestakuntza, ikerketa aplikatua, praktika onak...)?



Hezkuntza bikaintasuna eta ikasleen arrakasta

Dimentsio honek ikasleen garapen integrala du ardatz, hezkuntza-bikaintasuna eta aukera-berdintasuna uztartuz. Euskara eta hizkuntzen trataera integratua oinarri hartuta, eleaniztasuna eta kulturaliztasuna aberastasun gisa ulertzen dira. Irakatsi eta ikasteko prozesuek ikasleen autonomia, pentsamendu kritikoa eta konpetentzia globalak sustatzen dituzte. Horretarako, irakasleak dira eraldaketaren ardatz nagusiak, beren jardun profesionalaren bidez ikaskuntza-esperientzia berritzaile eta inklusiboak gidatuz.

3. Ardatza: Euskara, eleaniztasuna eta kultura-aniztasuna

 G.O.3 taula. Hizkuntzen trataera

Hizkuntzen trataera. Euskararen garapena

- Zein da gure ikastetxearen errealitate soziolinguistikoa, eta nola islatzen da Hizkuntza Proiektuan?
- Zein da ikastetxeak hizkuntza guztien trataera integratu eta integralerako ezarritako ikuspegia?
- Nola sustatzen da euskararekiko atxikimendua eta erabilera ikasleen artean?
- Zein espazio eta jarduera erabiltzen dira euskal kulturaren eta identitatearen transmisiorako?
- Ba al du ikastetxeak ikasle etorri berrientzako hizkuntza-harrera protokolo sistematikoa?
- Nola berrmatzen da hizkuntza guztiek duten aitorpena eta presentzia positiboa eskolako jardunean?
- Nola sustatzen du ikastetxeak ikasleen jatorrizko hizkuntzen eta kulturen balioespena.

4. Ardatza: Irakatsi eta ikasteko prozesua

Informazio esanguratsua

Ikastetxeko Hezkuntza-Proiektuaren (aurrerantzean, IHP) testuinguruan, erabaki garrantzitsuak hartzeko, jarraian dituzuen taulak sortu dira. Taulen helburua da erabakiak modu antolatu eta argian jasotzea, eta ikastetxe mailan hartu beharreko erabakiak agerian uztea. Gogoan izan behar da, erabakiak ezin direla era isolatuan hartu, erabaki bakoitzak beste guztiei eragiten die. Beraz, erabakiak, elkarren arteko koherentzia eta integrazioa kontuan izanik hartu behar dira.

Aurrekoa kontuan hartuta, taula hauek bi funtzio nagusi dituzte: batetik, ikastetxean egiten denaren erregistroa eta jasoketarako euskarria izatea; eta bestetik, egin beharreko urratsak eta jarrerak azaleratzea, horretarako, atalka, kontuan izan beharreko alderdiak agerian jarri. Azken finean, taulek gaur egun egiten duzuenaren diagnostikoa egiteko balio dute, baina, aldi berean, ispilu lana ere egingo dute, egin beharrekoak zeintzuk izan daitezkeen markatuz eta alderdi esanguratsuetan fokoa jarri.

Taulen egituraketan, eta aurreko paragrafoan aipatutako bi funtzioei erantzunez, galderekin dute protagonismoa, ikastetxe mailan hartu beharreko erabakiak ezinbestean ebidentzietan oinarrituak eta hausnartuak izan behar direlako.

Taulen egiturari dagokionez, erabakiak jasotzeko era ezberdinak eskaini nahi izan dira: checklist formatuan zein idatziz jasotzeko aukera, eta orain arte ikastetxe mailan dokumentatutako erabakiak esteka bidez edo bertan idatzita txertatzeko aukera. Taula guztiek antzeko egitura mantentzen dute eta denek eskaintzen dute era askean idazteko aukera, betiere planteatzen diren galderei erantzunez. Helburua da, ikastetxe bakoitzak galderei erantzun egokia eman ahal izatea, baina, era berean, erabaki horiek jasotzeko formatuari buruzko autonomia eta malgutasuna eskaintzea. Lan horretan lagungarri, taula bakoitzak betetzeko instrukzioak eta laguntza-oharrak ditu aurretik.

Taulek hiru barne-atal mota dituzte, eta bakoitza kolore desberdin batez adierazten da.



Atal informatiboak.

Informazioa emateko atalak dira; bertan ez da ezer adierazi edo idatzi behar.



Derrigorrezko atalak.

Derrigor bete behar-koak dira, checklist bidez, idatziz edo estekak txertatuz.



Hautazko atalak.

Nahi izanez gero bete daitezkeen atalak dira, idatziz edo estekak txertatuz.

Irteera-profila

T.O. 16 Irteera-profila

IRTEERA-PROFILA

Taula betetzeko jarraibideak eta oharrak

Taula betetzerakoan, ondorengo jarraibideak eta oharrak kontuan izan:

- **Testuinguraketa:** gaia kokatzeko eta gako-hitzak nabarmentzeko atala da. **Informatiboa**
- **Ikastetxean ditugun aurreiritziak. (Abiapuntua):** checklist formatuan, ikastetxean curriculumaren ezarpenean dauden aurreiritziak eta aurrera begira osatuko den ibilbidearen abiapuntua izateko asmoa duen atala. Ezkerreko zutabearen X baten bidez adierazi behar da. **Derrigorrezkoa**

Testuinguraketa

Nola eragiten dute IHPn hartzen diren erabakiek ikasleen irteera-profilean, eta zergatik da garrantzitsua erabaki horiek koherentziaz eta modu integratuan aplikatzea ikastetxeko eguneroko jardunean?

IHPn hartzen diren erabakiak ikaslearen prestakuntzaren ipar bilakatzen dira. Erabakiak ezin dira era isolatuan hartu, baizik eta elkarren arteko koherentziaz eta integrazioz eraikitzen dira, ikastetxearen norabidea eta identitatea zehaztuz. Erabaki bakoitzak beste guztiei eragiten die, eta, ondo tsona oso, autonomo eta gizartearekiko konprometitu gisa heztea da xedea. Horregatik, ezinbestekoa da IHPn jasotako printzipio, balio eta helburuak koherentziaz eta malgutasunez uztartzea, programazio didaktikoetan eta ikasegoeretan modu praktikoa txertatuz, betiere ikasleen behar eta testuingurura egokituta. Prozesu honetan, irakasleen lankidetzak eta konpromisoa funtsezkoak dira, euren esku-hartzea bateratua eta arduratsua izanik.

Ikastetxean ditugun aurreiritziak <i>(abiapuntua)</i>	
Ikastetxe bezala irteera-profila osatzen duten funtsezko konpetentziak gure ikastetxeko praktikan integratuak ditugula uste dugu?	
	Bai
	Ez.
Curriculumaren ezarpenean indarguneak ditugula uste dugu?	
	Bai.
	Ez.
Eta hobetzeko alderdiak identifikatu ditugu?	
	Bai.
	Ez
Pentsatu dugu ikastetxe bezala hartzen ditugun erabakiek zein nolako eragina izan dezaketen ikasleen irteera-profilean?	
	Bai.
	Ez
Gure ikastetxeko ikasleek, Oinarrizko Derrigorrezko Hezkuntzaren eta/edo Batxilergoaren amaieran, dekretuek zehazten duten irteera-profila eskuratzen dute?	
	Bai.
	Ez.

EBALUAZIOAREN ARGUDIAKETA CURRICULARRA

Taula betetzeko jarraibideak eta oharrak

Taula betetzerakoan, ondorengo jarraibideak eta oharrak kontuan izan:

- Testuinguraketa: gaia kokatzeko eta gako-hitzak nabarmentzeko atala da. **Informatiboa**
- Hausnarketa-galderak: hausnarketarako eta prozesua aurrera eramateko atala da, baita erabakietan laguntzeko galderak jasotzeko atala ere. **Informatiboa**
- Hausnarketaren bidez hartutako ikastetxeko erabakiak (lotesleak): checklist formatuan, ikastetxean hartutako erabakiak markatzeko atala da. Ezkerreko zutabean X baten bidez adierazi behar da. Markatu gabe geratzen diren atalak hausnartu beharreko gaiak dira. **Derrigorrezkoa**
- Bestelako erabakiak...: ikastetxean gai horren inguruan hartutako bestelako erabakiak idatziz jasotzeko atala da. Formatu librean idatzi ahal izateko atala. **Hautazkoa**
- Erabakien justifikazioa...: gai horren inguruan hartutako erabakien justifikazioa idatziz jasotzeko atala. Formatu librean idatzi beharreko atala. **Derrigorrezkoa**
- Ikastetxe bezala hartu beharreko erabakiak eta erantzun beharreko galderak (mailakako argazkia): mailaka edo zikloka hartutako erabakiak idatziz jasotzeko aukera ematen duen atala. **Hautazkoa**
- Erabakien inplementazioa eta sistematizazioa: checklist formatuan, ezkerreko zutabean X baten bidez adierazi eta, behar izanez gero, jada sortuako dokumentu osagarriak estekatzeko aukera ematen duen atala. **Derrigorrezkoa**
- Hobetzeko eman ditzakegun urratsak: diagnostikoa eginda, zer hobetu daitekeen eta hobekuntzarako bideak nola antolatu daitekeen idatziz jasotzeko atala da. **Derrigorrezkoa**
- Formatu librean: argudiaketa curricularra (idatziz zein esteka bidez): ikastetxean jada hartutako hainbat erabaki idatziz jasotzeko atala da. Behar izanez gero, erabakien jasoketan laguntzen duten dokumentuetara estekak jar daitezke. **Hautazkoa**
- Hobekuntza esparruak (ikasturte bukaeran betetzeko, egonez gero): ikasturtez ikasturte, kurtso bukaeran hurrengo ikasturtera begira hobekuntza-bideak atzematen badira, hemen jasotzeko atala da. **Hautazkoa**

Testuinguraketa

Zein alderdi hartu behar dira kontuan, ikastetxe bezala, curriculumaren antolaketa egiteko?

Curriculumaren antolaketa elementuak ezinbestekoak dira ikaskuntza-prozesua modu osatu eta eraginkorrean bideratzeko. Helburu nagusietako bat da curriculuma ikasle guztien beharretara eta ikastetxearen testuingurura egokitzea, ikaskuntza esanguratsua eta testuinguruari kokatua sustatzeko. Horretarako, hartzen diren erabakiak hausnarketa sakon baten eta parte-hartze prozesu baten ondorioz hartu behar dira, ikasleek etorkizuneko erronkei aurre egin eta gizarte aldakor batean arrakastaz moldatzeko behar dituzten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak garatu ditzaten bermatzeko.

Beraz, oso garrantzitsua da ikastetxe mailan argi izatea nola antolatuko dituzuen konpetentzia espezifikoak, ebaluazio-irizpideak eta oinarritzko jakintzak, maila, ziklo, arlo eta eremu bakoitzari dagokionean; bai eta kalifikazio-irizpideen zehaztasuna ere, ikasleen garapen integrala eta irteera-profilaren lorpena ziurtatzeko. Erabaki horiek guztiak ibilbide osoan zehar koherentziaz eta jarraipenaz aplikatu behar dira.

Hausnarketa-galderak

- Zer egiten dugu ikastetxe bezala curriculumaren antolaketa egiteko?
- Nola antolatu ditugu ikastetxean konpetentzia espezifikoak, ebaluazio-irizpideak eta oinarritzko jakintzak?
- Nola egin dugu konpetentzia espezifikoen eta ebaluazio-irizpideen ponderazioa?
- Ebaluazio-irizpideetako jardun-mailak eta kalifikazio-irizpideak zehaztuta ditugu?

Erne! Galdera horien erantzunek izan dezaketen eraginaz hausnartu duzue? Hau da...

- Hartutako curriculum-argudiaketa eta erabakiek ikasleen ibilbide orekatua eta konpetentziala garatzea bermatzen dute?
- Hartutako erabakien ondorioz, zer nolako irteera-profila izango du gure ikastetxeak?
- Orain arte hartutako erabakien ebaluazioa eta hausnarketa egin dugu? Ikasleen emaitza konpetentzialak kontuan hartu ditugu?
- Ebaluazio-irizpideak mailaka banatzea erabaki badugu, horietako batean edo batzuetan ikasleren batek gutxieneko garapena izango balu, noiz eta nola izango luke hori berriz lantzeko aukera?
- ...

Hausnarketaren bidez hartutako ikastetxeko erabakiak (lotesleak)

Zer egiten dugu ikastetxe bezala curriculumaren antolaketa egiteko? (argazki orokorra)

Konpetentzia eta ebaluazio irizpideen antolaketa eta ponderazioa

Nola antolatu ditugu konpetentzia espezifikoak?

	Konpetentzia espezifikoak maila bakoitzean bere osotasunean lantzen ditugu. .
	Konpetentzia espezifikoak zikloan banatu ditugu: batzuk maila batzuetan lantzen dira eta besteak beste batzuetan.
	Konpetentzia espezifiko guztiak maila guztietan lantzen ditugu baina ez bere osotasunean.

Bestelako erabakiak...

Erabakien justifikazioa...

Nola hartu ditugu konpetentzia espezifikoaren antolaketa egiteko erabakiak?

	Ikastetxe bezala hartu ditugu, eta antolaketak, ikastetxeko ikuspegiari erantzuten dio.
	Ziklo, arlo, mintegi bakoitzaren esku geratu da eta kontrasterik ez dugu egin.
	Oraindik egin gabe dugu.

Bestelako erabakiak...

Erabakien justifikazioa...

Nola egin dugu konpetentzia espezifikoaren ponderazioa?

	Konpetentzia espezifiko guztiei balio bera eman diegu.
	Konpetentzia espezifiko bakoitzari balio ezberdin bat eman diegu.

Bestelako erabakiak...

Erabakien justifikazioa...

Konpetentzia espezifikoaren ponderazioa egiterakoan, nola hartu ditugu erabakiak?

	Ikastetxe bezala egin dugu, eta ponderazio-erabakiek, ikastetxeko ikuspegiari erantzuten diote.
	Ziklo, arlo, mintegi bakoitzaren esku geratu da eta kontrasterik ez dugu egin.
	Oraindik egin gabe dugu.

Bestelako erabakiak...

Erabakien justifikazioa...

Nola antolatu ditugu ebaluazio-irizpideak?

	Ebaluazio-irizpide guztiak maila bakoitzean bere osotasunean lantzen ditugu.
	Ebaluazio-irizpide guztiak mailakatu egin ditugu maila bakoitietan, eta bakoitietan, osotasunean lantzen dira.
	Ebaluazio-irizpideak zikloan banatu ditugu; batzuk maila batzuetan lantzen ditugu eta besteak beste batzuetan.
	Ebaluazio-irizpideak zikloan banatu ditugu; batzuk maila batzuetan lantzen dira eta besteak beste batzuetan. Horietako batzuk, bi mailetan lantzen ditugu.

Bestelako erabakiak...

Erabakien justifikazioa...

Nola hartu ditugu konpetentzia espezifikoen antolaketa egiteko erabakiak?

	Ikastetxe bezala hartu ditugu, eta antolaketak, ikastetxeko ikuspegiari erantzuten dio.
	Ziklo, arlo, mintegi bakoitzaren esku geratu da eta kontrasterik ez dugu egin.
	Oraindik egin gabe dugu.

Bestelako erabakiak...

Erabakien justifikazioa...

Antolaketa horrek, ebaluazio-irizpideak ziklo edo maila bakoitzaren barruan behin baino gehiagotan lantzeko eta eskuratzeko aukera bermatzen digu?

	Bai.
	Batzuetan bakarrik.
	Ez.

Bestelako erabakiak...

Erabakien justifikazioa...

Nola egin dugu ebaluazio-irizpideen ponderazioa?

	Ebaluazio-irizpide guztiei balio bera eman diegu.
	Ebaluazio-irizpide bakoitzari balio ezberdin bat eman diegu.

Bestelako erabakiak...

Erabakien justifikazioa...

Ebaluazio-irizpideen ponderazioa egiterakoan, nola hartu ditugu erabakiak?

	Ikastetxe bezala egin dugu, eta ponderazio-erabakiek, ikastetxeko ikuspegiari erantzuten diote.
	Ziklo, arlo, mintegi bakoitzaren esku geratu da eta kontrasterik ez dugu egin.
	Oraindik egin gabe dugu.

Bestelako erabakiak...

Erabakien justifikazioa...

Ebaluazio-irizpideen jardun-mailak

Ebaluazio-irizpideen jardun-mailak zehaztuta ditugu?

	Bai.
	Ez.

Erabakien justifikazioa...

Zehaztuta izatekotan, nola hartu dugu erabakia?

	Jardun-mailak ikastetxe bezala bateratu ditugu.
	Ziklo barruan jardun-maila berdinak mantentzen ditugu.
	Jardun-mailak mailakatu egin ditugu ziklo bakoitzean.
	Jardun-mailak ziklo, arlo, mintegi bakoitzaren esku utzi ditugu eta, horrenbestez, kontrasterik ez dago.
	Oraindik egin gabe ditugu.

Bestelako erabakiak...

Erabakien justifikazioa...

Irizpide orokor gisa, zenbat mailetan sailkatu ditugu jardun-mailak?

	Hiru mailetan.
	Lau mailetan.
	Bost mailetan.

Bestelako erabakiak...

Erabakien justifikazioa...

Oinarrizko jakintzen antolaketa

Nola antolatu ditugu oinarrizko jakintzak?

	Oinarrizko jakintza guztiak maila bakoitzean osotasunean lantzen ditugu.
	Oinarrizko jakintzak zikloan banatu ditugu; batzuk maila batzuetan lantzen ditugu eta besteak beste batzuetan.
	Oinarrizko jakintzak zikloan banatu ditugu; batzuk maila batzuetan lantzen ditugu eta besteak beste batzuetan. Horietako batzuk, bi mailetan lantzen ditugu.

Bestelako erabakiak...

Erabakien justifikazioa...

Nola hartu ditugu oinarrizko jakintzen antolaketa egiteko erabakiak?

	Ikastetxe bezala hartu ditugu, eta antolaketak, ikastetxeko ikuspegiari erantzuten dio.
	Ziklo, arlo, mintegi bakoitzaren esku geratu da eta kontrasterik ez dugu egin.
	Oraindik egin gabe dugu.

Bestelako erabakiak...

Erabakien justifikazioa...

Kalifikazio-irizpideak

Kalifikazio-irizpideak (Gutxiegia, Nahikoa, Ongi, Oso Ongi eta Bikaina) definituta ditugu?

	Bai.
	Ez.

Erabakien justifikazioa...

Kalifikazio-irizpideen definizioa egiterakoan, nola hartu ditugu erabakiak?

	Ikastetxe bezala egin dugu, eta definizio-erabakiek, ikastetxeko ikuspegiari erantzuten diote.
	Ziklo, arlo, mintegi bakoitzaren esku geratu da eta kontrasterik ez dugu egin.
	Oraindik egin gabe dugu.

Bestelako erabakiak...

Erabakien justifikazioa...

Definituta izatekotan, zeren arabera hartu dugu erabakia?

	Ebaluazio-irizpideen garapen mailaren arabera.
	Konpetentzia-espezifikoaren garapen mailaren arabera.

Bestelako erabakiak...

Erabakien justifikazioa...

Kalifikazio-irizpideak definitzerakoan zein balio motatan oinarritu gara?

	Balio kuantitaiboetan oinarritu gara. (Adibidez: garapen mailaren %a, kopuru neurgarriak...)
	Balio kualitatiboetan oinarritu gara. (Adibidez: garapen pertsonalari, autonomiari, etab. lotutako irizpideak)
	Bi balio motetan oinarritu gara, kuantitatiboak zein kualitatiboak.

Bestelako erabakiak...

Erabakien justifikazioa...

Idatzi kalifikazio-irizpide bakoitzari dagokion definizioa. Zer da guretzat gutxiegi, nahikoa, ongi, oso ongi eta bikaina?

	Gutxiegi:
	Nahikoa:
	Ongi:
	Oso ongi:
	Bikaina:

Erabakien justifikazioa...

Ikastetxe bezala hartu beharreko erabakiak eta erantzun beharreko galderak (mailakako argazkia)

Ikastetxe bezala egin dugu, eta definizio-erabakiek, ikastetxeko ikuspegiari erantzuten diote.

HH 2	HH 3
HH 4	HH 5

LH 1. maila	LH 2. maila
LH 3. maila	LH 4. maila
LH 5. maila	LH 6. maila
DBH 1. maila	DBH 2. maila
DBH 3. maila	DBH 4. maila
BATX 1. maila	BATX 2. maila

Definituta izatekotan, zeren arabera hartu dugu erabakia?

	Aurreko puntuetan aipatutako erabakiak Programazio Didaktikoetan jasoak ditugu eta egiten denaren jarraipena egiten dugu.
	Aurreko puntuetan aipatutako erabakiak ikasegoeretan jasoak ditugu eta egiten denaren jarraipena egiten dugu.
	Aurreko puntuetan aipatutako hainbat erabaki kudeaketa aplikazioetan (EKHA,...) jasoak ditugu.
	Aurreko puntuetan aipatutako erabakiak bestelako dokumentu osagarrietan jasoak ditugu.

Dokumentu osagarrietara esteka...

Hobetzeko eman ditzakegun urratsak

Zein dira ikastetxe mailan curriculumaren antolaketan hobetzeko eman ditzakegun urratsak?

Gogoratu antolaketak koherentzia horizontal eta bertikal bati (maila, zikloa, garapen maila...) erantzun behar diola.

-

Formatu librea: argudiaketa curricularra (idatziz zein esteka bidez)

Gogoratu antolaketak koherentzia horizontal eta bertikal bati (maila, zikloa, etapa, garapen maila...) erantzun behar diola.

Hausnarketarako eta prozesua aurrera eramateko eta erabakietan laguntzeko galderak.

- Zer egiten dugu ikastetxe bezala curriculumaren antolaketa egiteko?
- Nola antolatu ditugu ikastetxean konpetentzia espezifikoak, ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintzak?
- Nola egin dugu konpetentzia espezifikoaren eta ebaluazio-irizpideen ponderazioa?
- Ebaluazio-irizpideetako jardun-mailak eta kalifikazio-irizpideak zehaztuta ditugu?

Erne! Galdera horien erantzunek izan dezaketen eraginaz hausnartu duzue? Hau da...

- Hartutako curriculum-argudiaketa eta erabakiek ikasleen ibilbide orekatua eta konpetentziala garatzea bermatzen dute?
- Hartutako erabakien ondorioz, zer nolako irteera-profila izango du gure ikastetxeak?
- Orain arte hartutako erabakien ebaluazioa eta hausnarketa egin dugu? Ikasleen emaitza konpetentzialak kontuan hartu ditugu?
- Ebaluazio-irizpideak mailaka banatzea erabaki badugu, horietako batean edo batzuetan ikasleren batek gutxieneko garapena izango balu, noiz eta nola izango luke hori berriz lantzeko aukera?
- ...

Idazteko lekua eta/edo dokumentu osagarrietara iristeko estekak...

Hobekuntza esparruak (ikasturte bukaeran betetzeko, egonez gero)

25-26	
26-27	
27-28	
...	

Ebaluazioa (B Erabaki pedagogikoak)

 T.O. 18 Erabaki pedagogikoa

EBALUAZIOAREN ERABAKI PEDAGOGIKOAK

Testuinguraketa

Ebaluazioari dagokionez, zein alderdi hartu behar dira kontuan ikaslea bere ikaskuntza-prozesuaren protagonista izan dadin?

Ikastetxean, ebaluazio-prozesuaren alderdi garrantzitsuak argi identifikatu behar dira, eta horiek ikastetxe mailan hartu beharreko erabaki pedagogikoen arabera antolatu. Ebaluazio jarraitua garatu behar da, ebaluazio hezigarria eta hezitzailea uztartuz. Atzeraelikadura eraginkorra eskaini behar da, ikasleek ikaskuntza-prozesua ulertu eta hobetu dezaten. Metakognizioa bultzatu behar da, ikasleek beren pentsamendua eta estrategiak aztertu eta erregulatu ditzaten. Transferentzia-jarduerak ere barne hartu behar dira, ikasitakoa egoera berrietara aplika-tzeko gaitasuna garatzeko. Prozesu honetan, tresna eta erreminta egokiak hautatu eta erabili behar dira, ikaskuntza-prozesua hobeto garatzeko eta ebaluazioa eraginkorragoa izan dadin. Horrenbestez, erabakiak modu koordinatuan hartu behar dira, ikaslearen beharretara egokituta.

Ebaluazioaren erabaki pedagogikoak atala bi tauletan antolatua dago:

- 1.- Ebidentzien jasoketa eta azterketarako tresnak eta erremintak
- 2.- Ebaluazio hezigarria eta hezitzailea

EBIDENTZIEN JASOKETA ETA AZTERKETARAKO TRESNAK ETA ERREMINTAK

Taula betetzeko jarraibideak eta oharrak

Taula betetzerakoan hurrengo jarraibideak eta oharrak kontuan izan:

- **Testuinguraketa:** gaia kokatzeko eta gako-hitzak nabarmentzeko atala da. **Informatiboa**
- **Hausnarketa-galderak:** hausnarketarako eta prozesua aurrera eramateko atala da, baita erabakietan laguntzeko galderak jasotzeko atala ere. **Informatiboa**
- **Hausnarketaren bidez hartutako ikastetxeko erabakiak (lotesleak):** checklist formatuan, ikastetxean hartutako erabakiak markatzeko atala da. Ezkerreko zutabea X baten bidez adierazi behar da. Aukera bat baino gehiago markatu daiteke. Markatu gabe geratzen diren atalak hausnartu beharreko gaiak dira. **Derrigorrezkoa**
- **Bestelako tresnak...:** ikastetxean zerrendatutako tresnez gain bestelako tresnak erabiltzen badira. Formatu librean idatzi beharreko atala. **Hautazkoa**

- **Bestelako erremintak....:** ikastetxean zerrendatutako erremintez gain bestelako erremintak erabiltzen badira. Formatu librean idatzi beharreko atala. [Hautazkoa](#)
- **Bestelako ezaugarriak....:** ikastetxean diseinatzen eta erabiltzen diren tresna/erremintek bestelako ezaugarriak izanez gero idatziz jasotzeko atala da. Formatu librean idatzi ahal izateko atala. [Hautazkoa](#)
- **Erabakien justifikazioa....:** gai horren inguruan hartutako erabakien justifikazioa idatziz jasotzeko atala. Formatu librean idatzi beharreko atala. [Derrigorrezkoa](#)
- **Bestelako erabakiak....:** ikastetxean gai horren inguruan hartutako bestelako erabakiak idatziz jasotzeko atala da. Formatu librean idatzi ahal izateko atala. [Hautazkoa](#)
- **Ikastetxe bezala hartu beharreko erabakiak eta erantzun beharreko galderak (mailakako argazkia):** mailaka edo zikloka hartutako erabakiak idatziz jasotzeko aukera ematen duen atala. [Hautazkoa](#)
- **Erabakien inplementazioa eta sistematizazioa:** checklist formatuan, ezkerreko zutabean X baten bidez adierazi eta, behar izanez gero, jada sortuako dokumentu osagarriak estekatzeko aukera ematen duen atala. [Derrigorrezkoa](#)
- **Hobetzeko eman ditzakegun urratsak:** diagnostikoa eginda, zer hobetu daitekeen eta hobekuntzarako bideak nola antolatu daitekeen idatziz jasotzeko atala da. [Derrigorrezkoa](#)
- **Formatu librean:** tresnak eta erremintak (idatziz zein esteka bidez): ikastetxean jada hartutako hainbat erabaki idatziz jasotzeko atala da. Behar izanez gero, erabakien jasoketan laguntzen duten dokumentuetara estekak jar daitezke. [Hautazkoa](#)
- **Hobekuntza esparruak (ikasturte bukaeran betetzeko, egonez gero):** ikasturtez ikasturte, kurtso bukaeran hurrengo ikasturtera begira hobekuntza-bideak atzematen badira, hemen jasotzeko atala da. [Hautazkoa](#)

Testuinguraketa

Hausnarketa-galderak

- Ikastetxe bezala zein ebaluazio-tresna erabiltzen ditugu?
- Ikastetxe bezala zein ebaluazio-erreminta erabiltzen ditugu?
- Ikastetxe bezala erabiltzen ditugun tresna eta erremintak era antolatu eta koordinatu batean erabiltzen ditugu?
- Zein dira ikastetxe mailan erabiltzen ditugun tresnen eta erreminten antolaketa hobetzeko eman ditzakegun urratsak?
- Nolako informazioa ematen digute erabiltzen ditugun tresnek eta erremintek ikasleen konpetentzien garapenari buruz? Eraginkorrak dira?
- Zein neurri hartzen ditugu ebaluazio-tresna eta erreminten erabilera etengabe hobetzeko eta eguneratzeko?
- Ebaluazio-tresna eta erreminta horiek laguntzen dute ikasleen ikaskuntza-prozesua hobetzen? Eraginkorrak dira?

Hausnarketaren bidez hartutako ikastetxeko erabakiak (lotesleak)					
Zein dira ikastetxean erabiltzen ditugun tresnak? (argazki orokorra)					
	Aurkezpenak		Galdetegiak		Mahai-inguruak
	Aurrekontuak		Gidoiak		Maketak
	Azterketa-probak		Gogoeta pertsonala		Mapak
	Berriak		Gutunak		Monografia
	Bidaia-planak		Ikasgelako koadernoak		Narrazioak
	Bideoak		Ikerketa-fitxak		Podcastak
	Blog-sarrerak		Infografiak		Ponentziak
	Debateak		Jarraibideak		Portfolioak
	Denbora-lerroak		Kantuak		Posterrak
	Elkarriketak		Kontzeptu-mapak		Proiektuak
	Emanaldiak		Koreografiak		Simulazioak
	Errezitaldiak		Krokisak		Solasaldiak
	Eskemak		Laburpenak		Triptikoak
	Eskola-irratia		Landa-koadernoak		Txostenak
Bestelako tresnak...					
-		-		-	
-		-		-	
Zein dira ikastetxean erabiltzen ditugun erremintak? (argazki orokorra)					
	Autoebaluazio fitxa		Ahozko eta idatzizko iruzkinak		
	Balidazio-eskala		Koebaluazio fitxak		
	Behaketa fitxak		Kontrol-zerrenda		
	Errubrika		Txostenak		

Bestelako erremintak...	
-	-
-	-

Ikastetxean tresna eta erreminta propioak diseinatzen ditugu? (argazki orokorra)

	Bai, irakasle guztiek.
	Ez, kanpoko baliabideak erabiltzen ditugu.
	Norberaren esku uzten dugu, irakasle batzuk bai eta beste batzuk ez.

Erabakien justifikazioa...

Ikastetxean tresnak diseinatzen baditugu, hurrengo ezaugarriak dituzte? (argazki orokorra)

	Tresnaren helburua zein den zehazten dugu.
	Zein ebaluazio-irizpideei eragiten dien zehazten dugu.
	Ikasleen aniztasunari eta erritmo ezberdinei erantzuteko aukera eskaintzen duela aztertzen dugu.
	Eredu eta/edo egoera errealekin lotura duela kontuan izaten dugu.
	Atzeraelikadura ahalbideratzen duela aztertzen dugu.
	Ikasleen parte-hartzea eta autonomia sustatzeko aukerak eskaintzen dituela aztertzen dugu.
	Garapen maila ezberdinei erantzuteko aukera ahalbideratzen duela aztertzen dugu.

Bestelako ezaugarriak...

Ikastetxean erremintak diseinatzen baditugu, hurrengo ezaugarriak dituzte? (argazki orokorra)

	Erremintaren helburua eta funtzioa zein den zehazten dugu.
	Zein ebaluazio-irizpideei eragiten dien zehazten dugu.
	Erraz erabiltzeko aukerak eskaintzen dituen aztertzen dugu.
	Eskakizun mailak mailaz maila modu gradualean handitzen direla kontuan izaten dugu, betiere aurreko mailakoekin lotura eta koherentzia mantenduz.
	Ebidentziak modu bisualean (grafiko, taula, txosten) esportatzeko aukera ematea kontuan izaten dugu.
	Ikasle bakoitzaren jarraipen pertsonalizatua egiteko aukera ematea ziurtatzen dugu.
	Bertsio berriak edo hobekuntzak erraz integratzeko aukera ematea kontuan izaten dugu.

Bestelako ezaugarriak...

Ikastetxean tresnak eta erremintak diseinatuz gero, era koordinatuan egiten dugu? (argazki orokorra)

Bai.

Ez.

Erabakien justifikazioa...

Era koordinatuan eginez gero, zer egiten dugu ikastetxean tresna eta erreminta homogeneousak diseinatzeko? (argazki orokorra)

Adostuak ditugun irizpideetan oinarritzen gara.

Taldean sortzen ditugu (mailaka, zikloka, mintegika...).

Arduradun edo koordinatzaile bat izendatua dugu, prozesuaren jarraipena egin eta koherentzia mantentzen dela ziurtatzeko.

Amankomuneko txantiloak erabiltzen ditugu.

Erabilera protokoloa bateratua dugu irakasle guztiek jarraitu beharreko pausoak argi izateko.

Bestelako ezaugarriak...

Ikastetxe bezala hartu beharreko erabakiak eta erantzun beharreko galderak (mailakako argazkia)

Mailaka edo zikloka hartutako erabakiak bertan idatzi, nahi izanez gero.

HH 2	HH 3
HH 4	HH 5
LH 1. maila	LH 2. maila
LH 3. maila	LH 4. maila
LH 5. maila	LH 6. maila
DBH 1. maila	DBH 2. maila

DBH 3. maila	DBH 4. maila
BATX 1. maila	BATX 2. maila

Erabakien inplementazioa eta sistematizazioa

	Aurreko puntuetan aipatutako erabakiak Programazio Didaktikoetan jasoak ditugu eta egiten denaren jarraipena egiten dugu.
	Aurreko puntuetan aipatutako erabakiak ikasegoeretan jasoak ditugu eta egiten denaren jarraipena egiten dugu.
	Aurreko puntuetan aipatutako tresna eta erreminten gaineko erabakiak bestelako dokumentu osagarrietan jasoak ditugu.

Dokumentu osagarrietara esteka...

Hobetzeko eman ditzakegun urratsak

Zein dira ikastetxe mailan erabiltzen ditugun tresnen eta erreminten erabileran hobetzeko eman ditzakegun urratsak?

Gogoratu antolaketa koherentzia horizontal eta bertikal bati (maila, zikloa, garapen maila...) erantzun behar diola.

-
-
-

Formatu librean: tresnak eta erremintak

(idatziz zein esteka bidez)

Gogoratu antolaketa koherentzia horizontal eta bertikal bati (maila, zikloa, etapa, garapen maila...) erantzun behar diola.

Hausnarketarako eta prozesua aurrera eramateko eta erabakietan laguntzeko galderak.

- Ikastetxe bezala zein ebaluazio-tresna erabiltzen ditugu?
- Ikastetxe bezala zein ebaluazio-erreminta erabiltzen ditugu?
- Ikastetxe bezala erabiltzen ditugun tresna horiek era antolatu eta koordinatu batean erabiltzen ditugu?
- Zein dira ikastetxe mailan erabiltzen ditugun tresnen antolaketa hobetzeko eman ditzakegun urratsak?
- Ikastetxe bezala erabiltzen ditugun erreminta horiek era antolatu eta koordinatu batean erabiltzen ditugu?
- Zein dira ikastetxe mailan erabiltzen ditugun erreminten antolaketa hobetzeko eman ditzakegun urratsak?

Idazteko lekua eta/edo dokumentu osagarrietara iristeko estekak...

Hobekuntza esparruak <i>(ikasturte bukaeran betetzeko, egonez gero)</i>	
25-26	
26-27	
27-28	
...	

EBALUAZIO HEZITZAILEA ETA HEZIGARRIA
Taula betetzeko jarraibideak eta oharrak

Taula betetzerakoan hurrengo jarraibideak eta oharrak kontuan izan:

- Testuinguraketa: gaia kokatzeko eta gako-hitzak nabarmentzeko atala da. **Informatiboa**
- Hausnarketa-galderak: hausnarketarako eta prozesua aurrera eramateko atala da, baita erabakietan laguntzeko galderak jasotzeko atala ere. **Informatiboa**
- Hausnarketaren bidez hartutako ikastetxeko erabakiak (lotesleak): checklist formatuan, ikastetxean hartutako erabakiak markatzeko atala da. Ezkerreko zutabearen X baten bidez adierazi behar da. Markatu gabe geratzen diren atalak hausnartu beharreko gaiak dira. **Derrigorrezkoa**
- Bestelako erabakiak...: ikastetxean gai horren inguruan hartutako bestelako erabakiak idatziz jasotzeko atala da. Formatu librean idatzi ahal izateko atala. **Hautazkoa**
- Ikastetxe bezala hartu beharreko erabakiak eta erantzun beharreko galderak (mailakako argazkia): mailaka edo zikloka hartutako erabakiak idatziz jasotzeko aukera ematen duen atala. **Hautazkoa**
- Erabakien inplementazioa eta sistematizazioa: checklist formatuan, ezkerreko zutabearen X baten bidez adierazi eta, behar izanez gero, jada sortuako dokumentu osagarriak estekatzeko aukera ematen duen atala. **Derrigorrezkoa**
- Hobetzeko eman ditzakegun urratsak: diagnostikoa eginda, zer hobetu daitekeen eta hobekuntzarako bideak nola antolatu daitekeen idatziz jasotzeko atala da. **Derrigorrezkoa**

- Formatu librean: ebaluazio hezitzailea eta hezigarria (idatziz zein esteka bidez): ikastetxean jada hartutako hainbat erabaki idatziz jasotzeko atala da. Behar izanez gero, erabakien jasoketan laguntzen duten dokumentuetara estekak jar daitezke. **Hautazkoa**

- Hobekuntza esparruak (ikasturte bukaeran betetzeko, egonez gero): ikasturtez ikasturte, kurtso bukaeran hurrengo ikasturtera begira hobekuntza-bideak atzematen badira, hemen jasotzeko atala da. **Hautazkoa**

Testuinguraketa

Zer egin daiteke, ikastetxe bezala, ebaluazioa hezitzailea eta hezigarria izan dadin?

Ikastetxean ebaluazioa hezitzailea eta hezigarria izan dadin, hainbat estrategia eta erabaki praktikan jarri behar dira: atzeraelikadura espezifikoa eta eraikitzailea eman behar zaio ikasleari, ikaskuntza-prozesuan zehar eta ebaluazio-irizpide argiekin lotuta; transferentzia-jarduerak diseinatu behar dira ikasitakoa egoera berrietan aplikatzeko eta eguneroko errealitatearekin lotzeko; metakognizioa landu behar da, ikasleek beren ikaskuntza-prozesuaz hausnartu eta autoebaluaziorako tresnak erabil ditzaten; irakaskuntza-estrategia aktibo eta inklusiboak erabili behar dira, ikasleen motibazioa, parte-hartzea eta autonomia sustatzeko; eta, azkenik, ikasleek ikaskuntza-prozesuan parte-hartze aktiboa, autonomia eta autoerregulazioa izan dezaten, aukera eta tresna zehatzak eskaini behar zaizkie. Praktika horiek elkarlanean eta modu integratuan garatu behar dira, ezin baitira isolatuta ulertu, izan ere, ebaluazio hezitzailea eta hezigarriak elkar osatzen eta indartzen dute.

Hausnarketa-galderak

- Zer egiten dugu ikastetxe bezala, ebaluazioa hezitzailea eta hezigarria izan dadin?
- Nola lantzen eta bultzatzen dugu atzeraelikadura?
- Transferentzia-jarduerak proposatzen ditugu? Nola daude horiek diseinatuta?
- Metakognizioa lantzeko aukerak eskaintzen ditugu? Planifikatutako prozesua da? Zenbateko garrantzia ematen diogu?
- Esku-hartze bateratua izan dadin, irakaskuntza-estrategiak adostuta ditugu? Koherentzia bertikala eta horizontala bermatzen da gure egunerokotasuneko esku-hartzean?
- Ikasleek ikaskuntza-prozesuan parte-hartze aktiboa izateko, autonomia eta autoerregulazioa lantzeko prozesurik badugu?
- Zer hartu behar dugu kontuan, ebaluazioa hasierakoa, jarraia eta amaierakoa izan dadin?
- Nola jorratzen dugu ikasleen ebaluazioaren pertsonalizazioa?

Hausnarketaren bidez hartutako ikastetxeko erabakiak (<i>lotesleak</i>)	
Ikastetxean ebaluazioa hezitzailea eta hezigarria izateko zer egiten dugu? (<i>argazki orokorra</i>)	
Atzeraelikadura	
	Ikastetxe bezala jarraibide batzuk adostu ditugu.
	Kalitatezko atzeraelikadura emateko irizpideak ezarriak ditugu.
	Etengabeko eta prozesuari lotutako atzeraelikadura ematen dugu, ez soilik bukaeran.
	Atzeraelikadura idatziz ematen dugu.
	Atzeraelikadura ahoz ematen dugu.
	Ikasleek atzeraelikadura ulertu dutela egiaztatzen dugu.
	Atzeraelikadura emateko uneak eta maiztasuna zehaztuta ditugu.
	Atzeraelikaduran hobekuntzarako iradokizun argiak eta praktikoak eskaintzen ditugu.
	Atzeraelikaduraren eraginkortasuna neurtzeko mekanismoak zehaztuta ditugu.
	Irakasleek atzeraelikadurari buruz elkarrekin hausnartzen dute eta hobetzen dute.
Bestelako ezaugarriak...	
Transferentzia-jarduerak	
	Eguneroko errealitatearekin lotutako jardueren zerrenda bat dugu, ondoren, gelan zein ikaskuntzarako bestelako espazioetan aplikatu eta ikasleek ikasitakoa egoera berrietan erabiltzeko.
	Transferentzia-jarduerak emateko uneak eta maiztasuna zehaztuta ditugu.
	Transferentzia-jardueren eraginkortasuna neurtzeko erreminta (kontrol-zerrenda, checklist, baliospen eskala...) dugu.
	Planteatzen ditugun transferentzia-jarduerak diziplinarteko ikuspegia dute.
	Planteatzen ditugun transferentzia-jarduerak goragoko mailako pentsamendua (pentsamendu gogoetatsua, kritikoa, sortzailea, logiko-analitikoa eta metakognitiboa) sustatzen dute.
Bestelako ezaugarriak...	

Metakognizioa	
	Metakognizioa lantzeko hainbat tresna lehenetsiak eta identifikatuak ditugu, ondoren, gelan zein ikaskuntzarako bestelako espaziotan aplikatu eta ikasleek ikasitakoa egoera berrietan erabiltzeko.
	Metakognizioa lantzeko uneak eta maiztasuna zehaztuta ditugu.
	Metakognizioaren eraginkortasuna neurtzeko erremintak (kontrol-zerrenda, checklist, baliospen eskala...) zehaztuak ditugu.
	Ikasleei beren ikaskuntza-planak diseinatzeko eta monitorizatzeko aukera eskaintzen diegu eta ikasegoeretan jasotzen dugu.

Bestelako ezaugarriak...

Irakaskuntza-estrategiak	
	Ikastetxean dugun metodologiaren baitan horien baitako irakaskuntza-estrategiak adostuak eta mailakatuak ditugu.
	Irakaskuntza-estrategien eraginkortasuna neurtzeko erremintak (kontrol-zerrenda, checklist, baliospen eskala...) zehaztuak ditugu.
	Esku-hartze bateratuaren jarraipen eta ebaluazio sistematizatua egiten dugu.
	Esku-hartze bateratua dugu ikasleen beharrei erantzuteko eta horri lotutako erabakiak dokumentatuak ditugu.

Bestelako ezaugarriak...

Ikasleek ikaskuntza-prozesuan parte-hartze aktiboa izatea, autonomia eta autoerregulazioa.	
	Ikasleek ikaskuntza-prozesuan parte-hartze aktiboa izateko eta autonomia zein autoerregulazioa lantzeko hainbat tresna eta estrategia lehenetsiak eta identifikatuak ditugu, ondoren, gelan zein ikaskuntzarako bestelako espaziotan aplikatu eta ikasleek ikasitakoa egoera berrietan erabiltzeko.
	Ikasleek ikaskuntza-prozesuan parte-hartze aktiboa izateko eta autonomia zein autoerregulazioaren eraginkortasuna neurtzeko erremintak (kontrol-zerrenda, checklist, baliospen eskala...) zehaztuak ditugu.
	Ikasleek beren ikaskuntza-planak diseinatu eta monitorizatzeko aukera dute eta ikasegoeretan jasotzen da.
	Ikaskuntza espazioetan ematen diren egoera ezberdinetan (eztabaidak, talde-lanak...) ikasle guztiek parte hartzeko eta partehartzea aktiboa izateko estrategiak zehaztuta ditugu.
	Ikaskuntza espazioetan ematen diren egoera ezberdinetan ikasleen autonomia sustatzeko uneak eta guneak planifikatuta ditugu.
	Autoebaluazioa eta koebaluazioa bultzateko jarduerak, tresnak eta erremintak erabiltzen ditugu.

Bestelako ezaugarriak...

Ebaluazioa hasierakoa, jarraia eta amaierakoa	
	Ikasleen abiapuntua ezagutzeko tresnak eta jarduerak proposatzen ditugu.
	Era kolegiatuan ikasleen beharrak eta ahuleziak aztertzen ditugu.
	Irakaskuntza plangintza eta diseinua ikasleen aurrezagutzetatik abiatzen dugu.
	Ikasleei egingo den bidearen berri ematen diegu ikasegoera bakoitzaren hasieran.
	Ikasleen lanaren, jardueren eta jarreraren jasoketa egiten dugu ebaluazio-irizpideak oinarri izanda. Jasoketa hori sistematikoa eta errepikatzen dugun prozedura da.
	Ikasleen aurrerapenaren arabera irakaskuntza-estrategiak doitzen ditugu.
	Ikasleen aurrerapena oinarri izanda laguntza neurriak abiatzen ditugu.
	Proposatzen ditugun amaierako zereginak ahalbideratzen dute ikaslearen garapenaren erregistroa egitea.

Bestelako ezaugarriak...

Ebaluazioaren pertsonalizazioa	
	Irakaskuntza plangintza eta diseinua ikasleen aurrezagutzetatik abiatzen dugu.
	Beharrezkoa den kasuetan, JPPak sortu ditugu.
	IDU printzipioetako estrategiak aplikatzen ditugu.
	Ikasleei tresna anitzak erabiltzeko aukera eskaintzen diegu.
	Atzeraelikadura pertsonalizatua gure praktikan integratua eta planifikatua dugu.
	Ikasle bakoitzaren garapenaren inguruko txosten pertsonalizatuak egiten ditugu.
	Ebaluatzeko erailtzen ditugun erremintek, ikasleekiko ebaluazio pertsonalizatu eta objektibo bat bermatzen dute.

Bestelako ezaugarriak...

Ikastetxe bezala hartu beharreko erabakiak eta erantzun beharreko galderak (mailakako argazkia)	
---	--

Mailaka edo zikloka hartutako erabakiak bertan idatzi, nahi izanez gero.

HH 2	HH 3
HH 4	HH 5

HH 2	HH 3
HH 4	HH 5
LH 1. maila	LH 2. maila
LH 3. maila	LH 4. maila
LH 5. maila	LH 6. maila
DBH 1. maila	DBH 2. maila
DBH 3. maila	DBH 4. maila
BATX 1. maila	BATX 2. maila

Erabakien inplementazioa eta sistematizazioa	
	Aurreko puntuetan aipatutako erabakiak Programazio Didaktikoetan jasoak ditugu eta egiten denaren jarraipena egiten dugu.
	Aurreko puntuetan aipatutako erabakiak ikasegoeretan jasoak ditugu eta egiten denaren jarraipena egiten dugu.
	Aurreko puntuetan aipatutako erabakiak bestelako dokumentu osagarrietan jasoak ditugu. OHARRA: atal honetan jasotako erabakiak ikastetxe, ziklo edo mailaren ikuspegiari erantzutea garrantzitsua da.
Dokumentu osagarrietara esteka...	

Hobetzeko eman ditzakegun urratsak

Zein dira ikastetxe mailan erabiltzen ditugun tresnen eta erreminten erabileran hobetzeko eman ditzakegun urratsak?

Gogoratu antolaketak koherentzia horizontal eta bertikal bati (maila, zikloa, garapen maila...) erantzun behar diola.

-
-
-

Formatu librean: tresnak eta erremintak (idatziz zein esteka bidez)

Gogoratu antolaketak koherentzia horizontal eta bertikal bati (maila, zikloa, etapa, garapen maila...) erantzun behar diola.

- Zer egiten dugu ikastetxe bezala, ebaluazioa hezitzailea eta hezigarria izan dadin?
- Nola lantzen eta bultzatzen dugu atzeraelikadura?
- Transferentzia-jarduerak proposatzen ditugu? Nola daude horiek diseinatuta?
- Metakognizioa lantzeko aukerak eskaintzen ditugu? Planifikatutako prozesua da? Zenbateko garrantzia ematen diogu?
- Esku-hartze bateratua izan dadin, irakaskuntza-estrategiak adostuta ditugu? Koherentzia bertikala eta horizontala bermatzen da gure egunerokotasuneko esku-hartzean?
- Ikasleek ikaskuntza-prozesuan parte-hartze aktiboa izateko, autonomia eta autoerregulazioa lantzeko prozesurik badugu?
- Zer hartu behar dugu kontuan, ebaluazioa hasierakoa, jarraia eta amaierakoa izan dadin?
- Nola jorratzen dugu ikasleen ebaluazioaren pertsonalizazioa?

Idazteko lekua eta/edo dokumentu osagarrietara iristeko estekak...

Hobekuntza esparruak (ikasturte bukaeran betetzeko, egonez gero)

25-26	
26-27	
27-28	
...	

Promozio erabakiak

T.O. 19 Promozio erabakiak

PROMOZIO ERABAKIAK
Taula betetzeko jarraibideak eta oharrak

Taula betetzerakoan hurrengo jarraibideak eta oharrak kontuan izan:

- Testuinguraketa: gaia kokatzeko eta gako-hitzak nabarmentzeko atala da. **Informatiboa**
- Hausnarketa-galderak: hausnarketarako eta prozesua aurrera eramateko atala da, baita erabakietan laguntzeko galderak jasotzeko atala ere. **Informatiboa**
- Hausnarketaren bidez hartutako ikastetxeko erabakiak (lotesleak): checklist formatuan, ikastetxean hartutako erabakiak markatzeko atala da. Ezkerreko zutabean X baten bidez adierazi behar da. Aukera bat baino gehiago markatu daiteke. Markatu gabe geratzen diren atalak hausnartu beharreko gaiak dira. Etapa bakoitzaren hasieran, Ebaluazio Aginduan gai honi erreferentzia egiten dioten atalak txertatu dira, hitzez hitz. Gris-argiz idatziak daude-nak etapa horri zuzenean erreferentzia egiten ez diotelako da. **Derrigorrezkoa**
- Bestelako erabakiak...: ikastetxean gai horren inguruan hartutako bestelako erabakiak idatziz jasotzeko atala da. Formatu librean idatzi ahal izateko atala. **Hautazkoa**
- Erabakien inplementazioa eta sistematizazioa: checklist formatuan, ezkerreko zutabean X baten bidez adierazi eta, behar izanez gero, jada sortuako dokumentu osagarriak estekatzeko aukera ematen duen atala. **Derrigorrezkoa**
- Hobetzeko eman ditzakegun urratsak: diagnostikoa eginda, zer hobetu daitekeen eta hobekuntzarako bideak nola antolatu daitekeen idatziz jasotzeko atala da. **Derrigorrezkoa**
- Formatu librean: promozio erabakiak (idatziz zein esteka bidez): ikastetxean jada hartutako hainbat erabaki idatziz jasotzeko atala da. Behar izanez gero, erabakien jasoketan laguntzen duten dokumentuetara estekak jar daitezke. **Hautazkoa**
- Hobekuntza esparruak (ikasturte bukaeran betetzeko, egonez gero): ikasturtez ikasturte, kurtso bukaeran hurrengo ikasturtera begira hobekuntza-bideak atzematzen badira, hemen jasotzeko atala da. **Hautazkoa**

Testuinguraketa

Nola erabakitzen da ikasle batek mailaz edo etapaz igarotzen duela? Zer erabaki dezake ikastetxe batek horren inguruan? Zer dago ikastetxearen esku?

Ikasle batek mailaz igarotzen duela erabakitzeko, ikastetxeak eta irakasle-taldeak ikasleak zikloko/mailako konpetentzia espezifikokoak lortu dituen aztertu behar da, eta ebaluazioaren emaitzak, ebidentziak eta ikaslearen garapen orokorra kontuan hartu. Mailaz ez igarotzea salbuespenezko neurria da. Irakasle-taldeak erabakitzen du, ikaslearen zailtasunei aurre egiteko laguntza-neurriak agortu ostean. Etapaz igarotzeko, irakasle-taldeak ebaluazioaren emaitzak, ikaslearen garapena eta laguntza-neurriak kontuan hartuko ditu. Ikastetxeen esku dago promozio-erabakiak hartzea, ebaluazioaren eta ikaslearen beharren arabera, eta ikastetxearen autonomia erabiliz, laguntza- eta errefortzu-planak diseinatzea, familiarekin komunikazioa mantentzea, eta ebaluazioaren emaitzak espediente akademikoan eta historia akademikoan islatzea, hezkuntza-ekitatea eta inklusioa bermatzeko. Irakasle-taldeak du, hura erabakitzeko eta adosteko ardura, beraiek baitira ikaslearen garapena hobekien ezagutzen duten profesional taldea.

Hausnarketa-galderak

- Promozioari dagokionez, ikastetxe bezala, zein da jarraitzen dugun bidea? Zein erabaki hartu ditugu bide horri ekiteko?
- Erabakiak hartzerakoan, legedietan, ebaluazio-aginduan eta dokumentazio akademikoan jasotakoa hartzen al dugu oinarri?

Hausnarketaren bidez hartutako ikastetxeko erabakiak (*lotesleak*)

Ikastetxean promozio erabakiak hartzeko zer egiten dugu? (*argazki orokorra*)

Haur Hezkuntza

Gogoratu (Ebaluazio agindua, AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 22koa, IV. Kapitulua):
“24. artikulua.– Ebaluazio-prozesua gauzatzea.

5.– Haur Hezkuntzan haurrak automatikoki igaroko dira hurrengo mailara. Etapa hori amaitzean ere automatikoki igaroko dira Lehen Hezkuntzara, salbu eta hezkuntza-premia bereziak izan eta araudiak geroago igarotzeko aukera ematen dien haurrak. Azken kasu horretan, ezartzen den prozedurari jarraituko zaio. Gaitasun handiko haurrei nahitaezko eskolatzearen hasiera aurreratu ahal izango zaie.”

“28. artikulua.– Ebaluazio-txostenak.

5.– Inguruabarrak direla-eta, ezohiko neurri gisa, nahitaezko eskolatzearen hasiera atzeratzen edo aurreratzen denean, neurri hori haurren ikasturte-amaierako ebaluazio-txostenean agertuko da.”

Beraz, ez dago mailaz errepikatzeko aukerarik, bakarrik, Hezkuntza Premia Bereziak dituzten haurrentzat eskolatzearen hasiera atzeratu daiteke, prozedura ofiziala jarraituz.

Ezohiko egoera bat izatekotan, Hezkuntzak proposatutako prozedura ofiziala jarraitzen dugu.

Bestelako erabakiak...

Gogoratu (Ebaluazio agindua, AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 22koa, V. Kapitulua):

“31. artikulua.– Mailaz igarotzea edo ikasturte berean egotea, salbuespen neurri gisa.

1.– **Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitza** eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila bakoitza amaitzean, eta ebaluazio-prozesuaren ondorioz, ikasturte-amaierako ebaluazio-saioan irakasle taldeak behar diren erabakiak hartuko ditu ikasleak mailaz igarotzeki buruz, kontuan izanda ezarritako konpetentzien eskuratzeko maila eta ikasleari aurrera egiten laguntzen dioten neurrien balorazioa.

2.– **Mailaz ez igarotzeko erabakia salbuespenezko neurritzat** hartuko da, eta ikasle bakoitzaren ezaugarrietara egokitutako hezkuntza-erantzuna emateko gainerako aukerak agortzen direnean bakarrik hartu ahal izango da. Halaber, erabaki hori hartzeko, ikaslearen heldutasuna eta alderdi emozionala hartuko dira kontuan.

Erabaki hori irakasle taldeari dagokio, eta modu kolegiatuan hartuko du. Edonola ere, hurrengo mailara ez igarotzeko erabakia hartu aurretik, tutorea ikaslearen gurasoei edo legezko tutoreekin bilduko da, eta ikasleak zer-nolako zailtasunak dituen azalduko die, bai eta zailtasun horiek gainditzeko zer neurri osagarri proposatzen diren ere.

Irakasle-taldeak ez igarotzeko erabakia argudiatu beharko du, eta errepikapena justifikatzen duten ebidentziak egiaztatu. Irakasle-taldeak hartutako erabakiek, mailaz ez igarotzeko erabakia bada, erabaki horiek justifikatzen dituzten ebidentziak jasoko dituzte, eta taldearen azken ebaluazioaren saioaren aktan jasoko dira.

Neurri hori behin bakarrik aplikatu daiteke maila bakoitzean, eta bi aldiz gehienez Oinarrizko Hezkuntza osoan. Lehen Hezkuntzan behin aplikatu daiteke ez igarotzeko neurria, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan bi aldiz, baldin eta Lehen Hezkuntzan aplikatu ez bada.

Salbuespenez, DBHko laugarren mailan beste urtebete eman ahal izango da, nahiz eta gehieneko aldia agortuta izan, baldin eta irakasle taldeak era kolegiatuan erabakitzen badu neurri hori lagungarria izango dela etapako helburuak lortzeko. Kasu horretan, urtebetez luzatu ahal izango da ezarritako adin-muga.

3.– Lehen Hezkuntzako lehenengo, hirugarren eta bosgarren mailetan ikasleak automatikoki igaroko dira hurrengo mailara.

4.– Lehen Hezkuntzan, ikasleak hurrengo ziklora igaroko dira arlo edo esparru guztiak gainditutakoan. Mailaz igaroko dira, halaber, irakasle taldeak uste duenean gainditu gabeko ikasgaiek edo esparruek ez dietela eragotziko hurrengo mailan arrakastaz jarraitzea, errekonferentziarako aukera onak dituztela eta promozio horrek haien bilakaera akademikoa hobetu egingo duela.

5.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, mailaz igaroko dira ikasgai edo esparru guztiak gainditu dituzten ikasleak edo ikasgai batean edo bitan ebaluazio negatiboa izan dutenak. Ikasleak mailaz igaroko dira, halaber, irakasle taldeak uste duenean gainditu gabeko ikasgaiek edo esparruek ez dietela eragotziko hurrengo mailan arrakastaz jarraitzea, errekonferentziarako aukera onak dituztela eta promozio horrek haien bilakaera akademikoa hobetu egingo duela.

6.– Arlo, jakintzagai edo eremuren batean ebaluazio negatiboa dutela hurrengo mailara igarotzen diren ikasleei jardura plan pertsonalizatuak ezarriko zaizkie.

7.- Hurrengo mailara ez igarotzeko erabakia hartu aurretik, tutorea ikaslearen gurasoeekin edo legezko tutoreekin bilduko da, ikaslea adingabea bada, eta azalduko die zer-nolako zailtasunak dituen ikasle horrek, bai eta zailtasun horiek gainditzeko zer neurri osagarri proposatzen diren ere.

8.- Lehen Hezkuntzako bigarren, laugarren eta seigarren mailak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila bakoitza amaitutakoan laugarren eta bosgarren apartatueta adierazitako baldintzak betetzen ez badira, irakasle taldeak, era kolegiatuan, eta tutorearen informazioa eta irizpidea bereziki kontuan hartuta, hausnartuko du ea ikaslearen garapenari laguntzeko neurri egokiena den maila berean beste urtebetez egotea.”

Beraz, Lehen Hezkuntzan mailaz ez igarotzeko erabakia salbuespenezko erabaki gisa hartuko da, etapan zehar behin bakarrik aplikatu ahalko da, izatekotan 2., 4. edo 6.mailan.

Mailaz ez igarotzeko erabakia salbuespenezko erabakia da eta arrazoitua izan behar du. Erabaki hori hartzeko hainbat alderdi eta irizpide izan behar dituzue kontuan. Ikastetxe bakoitzak, zuen autonomiaren baitan, erabakiko duzue atala honetan proposatzen diren azpi-atal bakoitzari edo erabakia hartzeko oinarri dituen bestelako irizpideei zenbateko garrantzia ematen diozuen. Erabakia irakasle-taldeari hartzea dagokio, era kolegiatuan.

Arloko emaitzak kontuan hartzea.

	Gainditu gabeko arloen kopurua eta arlo horien ezaugarriak kontuan izaten ditugu.
	Zikloa osatzen duten arloetako konpetentzia espezifikoek garapen maila kontuan hartzen dugu eta horien analisirako baremo batzuk (kuantitatiboak) zehaztuak ditugu, garapen maila hori oso esanguratsua den edo ez aztertzeko.
	Ikasleak bere adinari dagozkion oinarritzko ezagutzak bermatuak dituen aztertzen dugu.
	Ziklo bakoitzaren bukaeran ikasleek izan beharreko oinarritzko ezagutzak bermatuak dituzten aztertzeko irizpideak ikastetxe mailan adostuak, zehaztuak eta dokumentatuak ditugu, adinaren araberrako progresio eta garapen bat aurreikusiz.
	Aztertzen dugu errepikapenaren bidez ikasleak zikloari dagozkion konpetentzia espezifikoek eskuratze maila erdietsiko dituen edo ez.

Bestelako erabakiak...

Ikaslearen garapen pertsonala eta soziala kontuan hartzea.

	Ikasleak taldean eta ikastetxean arauak eta ohiturak errespetatzen dituela kontuan izaten dugu, baita egunerokotasunean jokabide desegokiak dituen edo ez aztertu ere.
	Ikaslea ikasgelako ikasleekin harreman ona eta komunikazio egokia duen aztertzen dugu, taldean onartua, maitatua eta errespetatua den aztertzen dugu.
	Bere izaera kontuan izanda, beste talde bateko ikasleekin ongi harremanduko dela aztertzen dugu.
	Errepikapenak bere autoestimuan bereziki era negatiboan eragingo dion aztertzen dugu.
	Aztertzen dugu errepikapenak ikaslearen garapen pertsonalean eta sozialean nolako eragina izango duen.

Bestelako erabakiak...

Ikaslearen autonomia eta lan ohiturak kontuan hartzea.

	Ikasleak, bere adinerako, autonomia kudeatzeko dituen gaitasunak aztertzen ditugu.
	Ikasleak, bere adinerako, bere kabuz lan egiteko gai den edo etengabeko laguntza eta ondorioz besteekiko mendekotasuna duen aztertzen dugu.
	Ikasleak, bere adinerako, lanak eta jarduerak antolatzeke gaitasuna duen aztertzen dugu.
	Ikasleak, bere adinerako, denboraren kudeaketa egokia egiten duen aztertzen dugu.
	Ikasleek ziklo/maila bakoitzaren bukaeran izan beharreko autonomia eta lan ohiturak irizpide batzuen baitan zehaztuak eta mailakatuak ditugu, adinaren arabera progresio bat aurreikusiz.
	Aztertzen dugu errepikapenak ikaslearen autonomiaren garapenean eta lan ohituren eskuratzeko nolako eragina izango duen.

Bestelako erabakiak...

Jarduera plan pertsonalizatuaren (JPP) eraginkortasuna kontuan hartzea.

	Ikasturtean zehar, laguntza neurri gisa, ikasleari jarritako JPParen eraginkortasuna aztertzen dugu.
	Aurreikuspena egiten dugu mailaz igaro edo errepikatuta ikasleak jasoko duen JPParen eraginkortasunaren inguruan.

Bestelako erabakiak...

Familiaren eta ikaslearen iritzia kontuan hartzea.

	Errepikapenerako aukerak daudela aurreikusiz gero, familiarekin aurretik komunikazio bilerak (informatzeko eta familiaren iritzia entzuteko) egiten ditugu.
	Balitzko errepikapen baten aurrean, familia eta ikastetxearen arteko adostasuna eman dadin saiatzen gara.
	Ikaslearekin mailaz ez igarotzeko aukeraz hitz egiten dugu, bere iritzia jaso eta erabakiak izan ditzakeen eraginak aurreikusteko.
	Familiarekin eta ikaslearekin osatzen den prozesuaren iritzia eta bestelako informazio esanguratsuak dokumentatzen ditugu.

Bestelako erabakiak...

Aholkularitza zerbitzuen iritzia kontuan hartzea.

	Behar izanez gero, Hezkuntza Sailak eskaintzen dituen aholkularitza zerbitzuetara jotzen dugu aholku eta iritzi eske.
--	---

Bestelako erabakiak...

Erabakitze batzordea.

	Erabakitze irizpideekin txosten bat egiten dugu, erabakiaren oinarri izango dena.
	Irakasle taldeak erabakitzen du, era kolegiatuan eta bereziki tutorearen iritzia kontuan hartuta, ikasleak promozionatzen duen edo ez.

Bestelako erabakiak...

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (1., 2. eta 3. mailak)

Gogoratu (Ebaluazio agindua, AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 22koa, V. Kapitulua):

“31. artikulua.– Mailaz igarotzea edo ikasturte berean egotea, salbuespen neurri gisa.

1.– Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila bakoitza amaitzean, eta ebaluazio-prozesuaren ondorioz, ikasturte-amaierako ebaluazio-saioan irakasle taldeak behar diren erabakiak hartuko ditu ikasleak mailaz igarotzeki buruz, kontuan izanda ezarritako konpetentzien eskuratzeko-maila eta ikasleari aurrera egiten laguntzen dioten neurrien balorazioa.

2.– Mailaz ez igarotzeko erabakia salbuespenezko neurritzat hartuko da, eta ikasle bakoitzaren ezaugarrietara egokitutako hezkuntza-erantzuna emateko gainerako aukerak agortzen direnean bakarrik hartu ahal izango da. Halaber, erabaki hori hartzeko, ikaslearen heldutasuna eta alderdi emozionala hartuko dira kontuan.

Erabaki hori irakasle taldeari dagokio, eta modu kolegiatuan hartuko du. Edonola ere, hurrengo mailara ez igarotzeko erabakia hartu aurretik, tutorea ikaslearen gurasoei edo legeko tutoreekin bilduko da, eta ikasleak zer-nolako zailtasunak dituen azalduko die, bai eta zailtasun horiek gainditzeko zer neurri osagarri proposatzen diren ere.

Irakasle-taldeak ez igarotzeko erabakia argudiatu beharko du, eta erreplikapena justifikatzen duten ebidentziak egiaztatu. Irakasle-taldeak hartutako erabakiek, mailaz ez igarotzeko erabakia bada, erabaki horiek justifikatzen dituzten ebidentziak jasoko dituzte, eta taldearen azken ebaluazioaren saioaren aktan jasoko dira.

Neurri hori behin bakarrik aplikatu daiteke maila bakoitzean, eta bi aldiz gehienez Oinarrizko Hezkuntza osoan. Lehen Hezkuntzan behin aplikatu daiteke ez igarotzeko neurria, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan bi aldiz, baldin eta Lehen Hezkuntzan aplikatu ez bada.

Salbuespenez, DBHko laugarren mailan beste urtebete eman ahal izango da, nahiz eta gehieneko aldia agortuta izan, baldin eta irakasle taldeak era kolegiatuan erabakitzen badu neurri hori lagungarria izango dela etapako helburuak lortzeko. Kasu horretan, urtebetez luzatu ahal izango da ezarritako adin-muga.

3.– Lehen Hezkuntzako lehenengo, hirugarren eta bosgarren mailetan ikasleak automatikoki igaroko dira hurrengo mailara.

4.– Lehen Hezkuntzan, ikasleak hurrengo ziklora igaroko dira arlo edo esparru guztiak gainditutakoan. Mailaz igaroko dira, halaber, irakasle taldeak uste duenean gainditu gabeko ikasgaiek edo esparruek ez dietela eragotziko hurrengo mailan arrakastaz jarraitzea, errekupeatzeko aukera onak dituztela eta promozio horrek haien bilakaera akademikoa hobetu egingo duela.

5.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, mailaz igaroko dira ikasgai edo esparru guztiak gainditu dituzten ikasleak edo ikasgai batean edo bitan ebaluazio negatiboa izan dutenak. Ikasleak mailaz igaroko dira, halaber, irakasle taldeak uste duenean gainditu gabeko ikasgaiek edo esparruek ez dietela eragotziko hurrengo mailan arrakastaz jarraitzea, errekuaratzeko aukera onak dituztela eta promozio horrek haien bilakaera akademikoa hobetu egingo duela.

6.- Arlo, jakintzagai edo eremuren batean ebaluazio negatiboa dutela hurrengo mailara igarotzen diren ikasleei jardura plan pertsonalizatuak ezarriko zaizkie.

7.- Hurrengo mailara ez igarotzeko erabakia hartu aurretik, tutorea ikaslearen gurasoeekin edo legezko tutoreekin bilduko da, ikaslea adingabea bada, eta azalduko die zer-nolako zailtasunak dituen ikasle horrek, bai eta zailtasun horiek gainditzeko zer neurri osagarri proposatzen diren ere.

8.- Lehen Hezkuntzako bigarren, laugarren eta seigarren mailak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila bakoitza amaitutakoan laugarren eta bosgarren apartatuetan adierazitako baldintzak betetzen ez badira, irakasle taldeak, era kolegiatuan, eta tutorearen informazioa eta irizpidea bereziki kontuan hartuta, hausnartuko du ea ikaslearen garapenari laguntzeko neurri egokiena den maila berean beste urtebetez egotea.

9.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, maila errepikatu ondoren ikasleak ez baditu betetzen hurrengo mailara igotzeko baldintzak, orientazio-sailaren aholkuz eta gurasoei edo legezko tutoreei informazioa eman ondoren, ikasle horrek ikasten jarraitzeko zer aukera dituen azalduko du irakasle taldeak, orientazio-aholku baten bidez, ikaslearen premiei eta interesei erreparatuta:

1. Ikasleak lehen maila egin badu, bigarren mailara igarotzea proposatuko da, errefortzu-neurriak hartuta, edo, bestela, hezkuntza-errefortzuko berariazko proiektu batean sartuko da.

2. Ikasleak bigarren maila egin badu, aukera hauen artean proposatuko da: hirugarren mailara igarotzea errefortzu-neurriekin, curriculum dibertsifikatzeko bi ikasturteko programa batera igarotzea, edo Oinarritzko Lanbide Heziketako ziklo batera igarotzea, azken horretan sartzeko baldintzak betetzen baditu.

3. Ikasleak hirugarren maila egin badu, laugarren mailara igarotzea proposatuko da, errefortzu-neurriak hartuta, edo, bestela, Oinarritzko Lanbide Heziketako ziklo batean sartuko da.

4. Ikasleak laugarren maila egin badu eta titulua eskuratzeko baldintzak betetzen ez baditu, Oinarritzko Lanbide Heziketako ziklo batean sar dadila proposatuko da, edo, bestela, laugarren mailan beste urtebete egin dezala, dela talde arrunt batean, dela, salbuespenez, curriculum dibertsifikatzeko programa batean. Beste urtebete egin ahal izateko laugarren mailan, artikulua honetako 2. puntuan ezarritako baldintzak bete behar dira.”

Beraz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen hiru mailetan mailaz ez igarotzeko erabakia salbuespenezko erabaki gisa hartuko da, etapan zehar gehienez bitan (Lehen Hezkuntzan errepikatu ez bada) aplikatu ahal da. Bestetik, ikasleak errepikatu ondoren hurrengo mailara igarotzeko baldintzak betetzen ez baditu eta orientazio-sailaren aholkuz, ikasten jarraitzeko dituen aukeraz informatuko zaio ikasleari, dagoen mailaren arabera.

Mailaz ez igarotzeko erabakia salbuespenezko erabakia da eta arrazoitua izan behar du. Erabaki hori hartzeko hainbat alderdi eta irizpide izan behar dituzue kontuan. Ikastetxe bakoitzak, zuen autonomiaren baitan, erabakiko duzue atala honetan proposatzen diren azpi-atal bakoitzari edo erabakia hartzeko oinarri dituen bestelako irizpideei zenbateko garrantzia ematen diozuen. Erabakia irakasle-taldeari hartzea dagokio, era kolegiatuan.

Arloko emaitzak kontuan hartzea.

	Ikasle batek hiru jakintzagai edo gehiago gainditu gabe dituenean emaitza horiek hurrengo mailan arakastaz jarraitzeko eta errekuiperatzeko aukera onak izan ditzakeen aztertzen dugu.
	Maila osatzen duten arloetako konpetentzia espezifikoek garapen maila kontuan hartzen dugu eta horien analisirako baremo batzuk (kuantitatiboak) zehaztuak ditugu, garapen maila hori oso esanguratsua den edo ez aztertzeko.
	Ikasleak bere adinari dagozkion oinarrizko ezagutzak bermatuak dituen aztertzen dugu.
	Maila bakoitzaren bukaeran ikasleek izan beharreko oinarrizko ezagutzak bermatuak dituzten aztertzeko irizpideak ikastetxe mailan adostuak, zehaztuak eta dokumentatuak ditugu, adinaren araberrako progresio eta garapen bat aurreikusiz.
	Aztertzen dugu errepikapenaren bidez ikasleak mailari dagozkion konpetentzia espezifikoek eskuratze maila erdietsiko dituen edo ez.

Bestelako erabakiak...

Ikaslearen garapen pertsonala eta soziala kontuan hartzea.

	Ikasleak taldean eta ikastetxean arauak eta ohiturak errespetatzen dituela kontuan izaten dugu, baita egunerokotasunean jokabide desegokiak dituen edo ez aztertu ere.
	Ikaslea ikasgelako ikasleekin harreman ona eta komunikazio egokia duen aztertzen dugu, taldean onartua, maitatua eta errespetatua den aztertzen dugu.
	Bere izaera kontuan izanda, beste talde bateko ikasleekin ongi harremanduko dela aztertzen dugu.
	Errepikapenak bere autoestimuan bereziki era negatiboan eragingo dion aztertzen dugu.
	Aztertzen dugu errepikapenak ikaslearen garapen pertsonalean eta sozialean nolako eragina izango duen.

Bestelako erabakiak...

Ikaslearen autonomia eta lan ohiturak kontuan hartzea.

	Ikasleak, bere adinerako, autonomia kudeatzeko dituen gaitasunak aztertzen ditugu.
	Ikasleak, bere adinerako, bere kabuz lan egiteko gai den edo etengabeko laguntza eta ondorioz besteekiko mendekotasuna duen aztertzen dugu.
	Ikasleak, bere adinerako, lanak eta jarduerak antolatze gaitasuna duen aztertzen dugu.

	Ikasleak, bere adinerako, denboraren kudeaketa egokia egiten duen aztertzen dugu.
	Ikasleek ziklo/maila bakoitzaren bukaeran izan beharreko autonomia eta lan ohiturak irizpide batzuen baitan zehaztuak eta mailakatuak ditugu, adinaren arabeko progresio bat aurreikusiz.
	Aztertzen dugu errepikapenak ikaslearen autonomiaren garapenean eta lan ohituren eskuratzeari nolako eragina izango duen.

Bestelako erabakiak...

Jarduera plan pertsonalizatuaren (JPP) eraginkortasuna kontuan hartzea.

	Ikasturtean zehar, laguntza neurri gisa, ikasleari jarritako JPParen eraginkortasuna aztertzen dugu.
	Aurreikuspena egiten dugu mailaz igaro edo errepikatuta ikasleak jasoko duen JPParen eraginkortasunaren inguruan.

Bestelako erabakiak...

Familiaren eta ikaslearen iritzia kontuan hartzea.

	Errepikapenerako aukerak daudela aurreikusiz gero, familiarekin aurretik komunikazio bilerak (informatzeko eta familiaren iritzia entzuteko) egiten ditugu.
	Balitzko errepikapen baten aurrean, familia eta ikastetxearen arteko adostasuna eman dadin saiatzen gara.
	Ikaslearekin mailaz ez igarotzeko aukeraz hitz egiten dugu, bere iritzia jaso eta erabakiak izan ditzakeen eraginak aurreikusteko.
	Familiarekin eta ikaslearekin osatzen den prozesuaren iritziak eta bestelako informazio esanguratsuak dokumentatzen ditugu.

Bestelako erabakiak...

Aholkularitza zerbitzuen iritzia kontuan hartzea.

	Behar izanez gero, Hezkuntza Sailak eskaintzen dituen aholkularitza zerbitzuetara jotzen dugu aholku eta iritzi eske.
--	---

Bestelako erabakiak...

Erabakitze batzordea.

	Erabakitze irizpideekin txosten bat egiten dugu, erabakiaren oinarri izango dena.
	Irakasle taldeak erabakitzen du, era kolegiatuan eta bereziki tutorearen iritzia kontuan hartuta, ikasleak promozionatzen duen edo ez.

Bestelako erabakiak...

Jada errepikatu duen eta aurrera jarraitzeko baldintzak betetzen ez dituen ikaslearen kasua.

Maila errepikatuta izan arren hurrengo mailara igarotzeko baldintzak betetzen ez dituen ikaslearen kasuan, orientazio-sailaren aholkuz, ikasten jarraitzeko zer aukera dituen azaltzen diogu. Aholku hauek, ikaslea aurkitzen den mailari eta aukerei egokituak egongo dira.
--

Bestelako erabakiak...

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (4. maila)

Gogoratu (Ebaluazio agindua, AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 22koa, V. Kapitulua):

31. artikulua.– Mailaz igarotzea edo ikasturte berean egotea, salbuespen neurri gisa.

*OHARRA: 1-8 puntuak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1., 2. eta 3. maileri dagokiena eta 9. puntuko d) atala eta 10. puntua:

9.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, maila errepikatu ondoren ikasleak ez baditu betetzen hurrengo mailara igotzeko baldintzak, orientazio-sailaren aholkuz eta gurasoei edo legeko tutoreei informazioa eman ondoren, ikasle horrek ikasten jarraitzeko zer aukera dituen azalduko du irakasle taldeak, orientazio-aholku baten bidez, ikaslearen premiei eta interesei erreparatuta:

1. Ikasleak lehen maila egin badu, bigarren mailara igarotzea proposatuko da, errefortzu-neurriak hartuta, edo, bestela, hezkuntza-errefortzuko berariazko proiektu batean sartuko da.

2. Ikasleak bigarren maila egin badu, aukera hauen artean proposatuko da: hirugarren mailara igarotzea errefortzu-neurriekin, curriculuma dibertsifikatzeko bi ikasturteko programa batera igarotzea, edo Oinarrizko Lanbide Heziketako ziklo batera igarotzea, azken horretan sartzeko baldintzak betetzen baditu.

3. Ikasleak hirugarren maila egin badu, laugarren mailara igarotzea proposatuko da, errefortzu-neurriak hartuta, edo, bestela, Oinarrizko Lanbide Heziketako ziklo batean sartuko da.

4. Ikasleak laugarren maila egin badu eta titulua eskuratzeko baldintzak betetzen ez baditu, Oinarrizko Lanbide Heziketako ziklo batean sar dadila proposatuko da, edo, bestela, laugarren mailan beste urtebete egin dezala, dela talde arrunt batean, dela, salbuespenez, curriculuma dibertsifikatzeko programa batean. Beste urtebete egin ahal izateko laugarren mailan, artikuluko 2. puntuan ezarritako baldintzak bete behar dira.

10.– Curriculuma dibertsifikatzeko programa amaitzean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortzeko moduan ez dauden ikasleak, adinari buruz ezarritako baldintza orokorrak betetzen badituzte, beste urtebete egin dezakete programan, baldin eta irakasle taldeak uste badu titulua lortzeko aukera onak dituztela. ”

“33. artikulua.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua.

1.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailako azken ebaluazio-saioan, irakasle taldeak etapa gainditzeari eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortzeari buruzko erabakiak hartuko ditu, kontuan hartuz zenbateraino eskuratu dituen ikasleak funtsezko konpetentziak eta etapako irteera-profila, maiatzaren 30eko 77/2023 Dekretuak zehaztuak (dekretu horrek Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen du).

2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortuko dute etapako ikasgai edo esparru guztiak gainditzen dituzten ikasleek.

3.- Halaber ikasleek titulua lortuko dute nahiz eta jakintzagai edo eremu guztiak gainditu ez, alegia, nahiz eta aipatutako dekretuan ezarritako konpetentzietako batzuetan behar adinako garapen-maila lortu ez, baldin eta irakasle taldeak, modu kolegiatuan, adierazten badu inguruabar horrek ez duela eragotziko haien hezkuntzaren jarraitutasuna. Inguruabar hori eginbide baten bitartez islatu behar da ikaslearen espediente akademikoan.

4.- Era berean titulua lortu ahal izango dute, curriculuma dibertsifikatzeko programa bat egin ondoren, irakasle taldearen iritziz etapako helburuak lortu eta konpetentzien garapen-maila egokia eskuratu dutenek, nahiz eta ikasitako esparru edo ikasgai guztiak gainditu ez.

5.- Horrez gain, Oinarrizko Lanbide Heziketako ziklo bat egin ondoren heziketa-ziklo horretako eremu guztiak gainditzen dituzten ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua eskuratuko dute.

6.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua bakarra izango da eta kalifikaziorik gabe emango da.

7.- Titulu hori lortzen ez dutenek, etaparako finkatutako adin muga gainditu dutenek eta inongo ikastetxetan matrikulaturik ez badaude, gainditu gabeko jakintzagaietako ezohiko proba bat egin ahal izango dute, horretarako matrikulatu ondoren, hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak ezarritako curriculumaren arabera eta sail horrek ezartzen duen antolaketa-rekin. Eskolatuta egon diren azken ikastetxean egingo dute proba hori.”

Beraz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailan titulatzeko ez duten ikasleen egoera anitza izan daiteke, ikasleari Oinarrizko Lanbide Heziketako ziklo batean izena ematea proposatu ahal zaio, laugarren maila talde arruntan berriz ere egitea proposatu ahal zaio, baita salbuespenez Dibertsifikazio Curricularreko talde batean laugarren maila berriz egitea ere. Dena dela, titulaziorako aukera ezberdinak daude, arlo edo jakintzagai guztiak gainditu dituzten ikasleek titulatu dute noski, baina salbuespenez eta irakasle taldeak horrela erabakita, beti ere erabakiak ikaslearen etorkizuneko ikaskuntza prozesua oztopatuko ez dela ulertuta, titulurako proposatu ahalko dira arlo edo jakintzagai guztiak gainditu gabe dituzten ikasleak ere, azkeneko hau eginbide baten bidez, ikaslearen espediente akademikoan jaso beharko da. Titulua bakarra izango da eta kalifikaziorik gabe emango da.

Arloko emaitzak kontuan hartzea.

	Ikasle batek jakintzagaiak gainditu gabe dituenean emaitza horiek hezkuntza jarraitutasunean jarraitzeko aukera ona izan dezakeen aztertzen dugu.
	Ikasle batek jakintzagai guztiak gainditu gabe dituenean ikasleak funtsezko konpetentziak eta etapako irteera-profila zenbateraino eskuratu dituen aztertzen dugu.
	Maila osatzen duten arloetako konpetentzia espezifikoaren garapen maila kontuan hartzen dugu eta horien analisirako baremo batzuk (kuantitatiboak) zehaztuak ditugu, garapen maila hori oso esanguratsua den edo ez aztertzeko.

	Titulatzeko baldintzak betetzen ez dituzten ikasleen kasuan, aztertzen dugu errepikapenaren edo bestelako bideen bidez (talde arruntean errepikatu, salbuespenez Dibertsifikazio Curricularreko taldera bideratzea edo Oinarrizko Lanbide Heziketara bideratzea) ikasleak irteera-profilari dagozkion funtsezko konpetentzien eskuratze maila erdietsiko dituen edo ez.
--	---

Bestelako erabakiak...

Ikaslearen garapen pertsonala eta soziala kontuan hartzea.

	Ikasleak taldean eta ikastetxean arauak eta ohiturak errespetatzen dituela kontuan izaten dugu, baita egunerokotasunean jokabide desegokiak dituen edo ez aztertu ere.
	Ikaslea ikasgelako ikasleekin harreman ona eta komunikazio egokia duen aztertzen dugu, taldean onartua, maitatua eta errespetatua den aztertzen dugu.
	Bere izaera kontuan izanda, beste talde bateko ikasleekin ongi harremanduko dela aztertzen dugu.
	Errepikapenak edo bestelako bideek bere autoestimuan bereziki era negatiboan eragingo dion aztertzen dugu.
	Aزتتzen dugu errepikapenak edo bestelako bideek ikaslearen garapen pertsonalean eta sozialean nolako eragina izango duen.

Bestelako erabakiak...

Ikaslearen autonomia eta lan ohiturak kontuan hartzea.

	Ikasleak, bere adinerako, autonomia kudeatzeko dituen gaitasunak aztertzen ditugu.
	Ikasleak, bere adinerako, bere kabuz lan egiteko gai den edo etengabeko laguntza eta ondorioz besteekiko mendekotasuna duen aztertzen dugu.
	Ikasleak, bere adinerako, lanak eta jarduerak antolatzeko gaitasuna duen aztertzen dugu.
	Ikasleak, bere adinerako, denboraren kudeaketa egokia egiten duen aztertzen dugu.
	Ikasleek ziklo/maila bakoitzaren bukaeran izan beharreko autonomia eta lan ohiturak irizpide batzuen baitan zehaztuak eta mailakatuak ditugu, adinaren arabera progresio bat aurreikusiz.
	Aزتتzen dugu errepikapenak edo bestelako bideek ikaslearen autonomiaren garapenean eta lan ohituren eskuratzean nolako eragina izango duen.

Bestelako erabakiak...

Jarduera plan pertsonalizatuaren (JPP) eraginkortasuna kontuan hartzea.

	Ikasturtean zehar, laguntza neurri gisa, ikasleari jarritako JPParen eraginkortasuna aztertzen dugu.
--	--

Bestelako erabakiak...

Familiaren eta ikaslearen iritzia kontuan hartzea.

	Errepikapenerako edo bestelako bideetarako aukerak daudela aurreikusiz gero, familiarekin aurretik komunikazio bilerak (informatzeko eta familiaren iritzia entzuteko) egiten ditugu.
	Balitzko errepikapen edo bestelako bideen aurrean, familia eta ikastetxearen arteko adostasuna eman dadin saiatzen gara.
	Ikaslearekin errepikatzeko edo bestelako aukeraz hitz egiten dugu, bere iritzia jaso eta erabakiak izan ditzakeen eraginak aurreikusteko.
	Familiarekin eta ikaslearekin osatzen den prozesuaren iritzia eta bestelako informazio esanguratsuak dokumentatzen ditugu.

Bestelako erabakiak...

Erabakitze batzordea.

	Erabakitze irizpideekin txosten bat egiten dugu, erabakiaren oinarri izango dena.
	Irakasle taldeak erabakitzen du, era kolegiatuan eta bereziki tutorearen iritzia kontuan hartuta, ikasleak titulatzeko duen edo ez.

Bestelako erabakiak...

Batzilergoa 1. maila

Gogoratu (Ebaluazio agindua, AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 22koa, VI. Kapitulua):

“49. artikulua.– Ikasleak hurrengo mailara igarotzea.

1.– Maiatzaren 30eko 76/2023 Dekretuaren 30. artikuluan ezarritakoaren arabera (dekretu horrek Batxilergoaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen du), lehenengo maila amaitzean eta ebaluazio-prozesuaren ondorioz, ikasle bakoitzaren irakasleek osatutako irakasle taldeak behar diren erabakiak hartuko ditu ikasle hori bigarren mailara igarotzeko buruz.

2.– Ikasleak bigarren mailara pasatuko dira ikasitako ikasgai guztiak gainditzen dituztenean edo gehienez bi ikasgaitan ebaluazio negatiboa jasotzen dutenean. Nolanahi ere, lehenengo mailan gainditu gabeko ikasgaietan matrikulatu beharko dira bigarren mailan, edo, hala badagokio, ikasitako eta gainditu gabeko ikasgaiak ordezkatzeko dituzten lehenengo mailako beste ikasgai batzuetan; horiek gainditu gabeko ikasgaitzat joko dira.

3.– Bigarren mailara igarotzen ez diren ikasleek beste urte bat egin beharko dute lehenengo mailan, eta ikasitako modalitatean ez beste batean matrikulatu ahal izango dira.

4.– Ikasleak mailaz igarotzeko buruzko erabakiak irakasle taldeak hartuko ditu, orientazio-sailaren aholkuak jasota, hala behar denean, ikasitako ikasgaietako konpetentzia espezifikoak zenbateraino lortu diren kontuan hartuta.

5.- Lehenengo mailan gaintitu gabeko ikasgaiak bigarren mailako ikasgaiak baino lehenago ebaluatu eta kalifikatuko dira, bai ohiko deialdian bai ezohiko deialdian.

50. artikulua.- Gaintitu gabeko ikasgaietarako erreformazua eta errekupezazioa.

1.- Sail didaktikoek erreformazu-programa bat antolatu behar dute, bigarren mailara igarotzean ikasgaiaren bat gaintitu gabe daukaten ikasleei ikasgai horiek errekupezatzen laguntzeko.

2.- Urteko erreformazu-programa egingo diete hala eskatzen duten ikasleei. Bertan azalduko dira ezarritako konpetentziak lortzeko gomendatzen diren jarduerak. Halaber, ebaluazio partzialeko jarduerak programatu ahal izango dituzte, kalifikazio negatiboa eragin zuten zailtasunak gaintitu direla egiaztatzeko.”

Beraz, Batxilergo 1.mailatik 2.mailara igaroko dira ikasgai guztiak gaintituak dituzten ikasleak edo gehienez bi ikasgai gaintitu gabe dituztenak. Gaintitu gabeko ikasgaien jarraipena eta ebaluazioa egin beharko da 2.mailan, horretarako sail didaktikoek propio diseinatutako urteko erreformazu-programen bidez.

Ikasgaietako emaitzak kontuan hartzea.

	Batxilergoko 1.mailako promoziorako Hezkuntza Sailak, 76/2023 dekretuaren eta Ebaluazio Aginduen bidez, eskatzen dituen eginbideak eta irizpideak jarraitzen ditugu.
	Ikasleren batek ikasgaien batean kalifikazio negatiboa duela mailaz igarotzen badu, sail didaktiko bakoitza ikasle horrentzako urteko erreformazu-programa diseinatzeaz arduratzen da.
	Urteko erreformazu-programak diseinatzeko ikastetxe mailan adostutako txantilo bat erabiltzen dugu.
	Promozioaren inguruko prozesua sistematizatua dugu eta hartzen ditugun erabakiak dokumentatzen ditugu.

Bestelako erabakiak...

Batxilergoa 2. maila

Gogoratu (Ebaluazio agindua, AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 22koa, VI. Kapitulua):

“49. artikulua.- Ikasleak hurrengo mailara igarotzea.

6.- Bigarren maila amaitzean ikasgai batzuetan ebaluazio negatiboa duten ikasleek aukera dute ikasgai horietan matrikulatzeko, gaintitutako ikasgaiak berriro ikasi beharrik izan gabe, edo maila osoa errepikatzeke.

50. artikulua.- Gaintitu gabeko ikasgaietarako erreformazua eta errekupezazioa.

1.- Sail didaktikoek erreformazu-programa bat antolatu behar dute, bigarren mailara igarotzean ikasgaiaren bat gaintitu gabe daukaten ikasleei ikasgai horiek errekupezatzen laguntzeko.

2.- Urteko erreformatu-programa egingo diete hala eskatzen duten ikasleei. Bertan azalduko dira ezarritako konpetentziak lortzeko gomendatzen diren jarduerak. Halaber, ebaluazio partzialeko jarduerak programatu ahal izango dituzte, kalifikazio negatiboa eragin zuten zailtasunak gainditu direla egiaztatzeko.”

51. artikulua.- Batxilergo-titulua

1.- Batxilergoa edozein modalitatetan behar bezala egiten duten ikasleek Batxilergoko titulua jasoko dute, eta titulu horrek lan- eta ikasketa-ondorioak izango ditu. Batxilergoko tituluak eskubidea emango du unibertsitate-ikasketetara, goi-mailako arte-ikasketetara, goi-mailako lanbide-heziketara, goi-mailako arte plastikoetako eta diseinuko ikasketetara eta goi-mailako kirol-ikasketetara sartzeko, baita lan-mundura ere.

2.- Batxilergoko titulua lortzeko, Batxilergoko bi mailetako ikasgai guztien ebaluazio positiboa jaso beharko da.

- Salbuespenez, irakasle taldeak, etapa honetan ikasle bakoitzari jakintzagaiak ematen dizkieten irakasleek osatuta egongo delarik, erabaki dezake ikasle batek Batxilergoko titulua lortzea jakintzagai guztiak, bat izan ezik, gainditu baditu, betiere baldintza hauek guztiak betetzen badira gainera:
- 1. Irakasle taldeak uste izatea ikasleak titulu horri lotutako helburuak eta konpetentziak lortu dituela.
- 2. Ikasleak ikasgaiaren behin eta berriz eta justifikaziorik gabe huts egin ez izana. Hutsegite jarraitu eta justifikaziorik gabeko horren gehieneko iraupena ezin da izan dagokion ikasgaiaren ordu kopuruaren % 20 baino handiagoa.
- 3. Ikaslea proba guztietara aurkeztu izana eta bera ebaluatzeko behar diren jarduerak egin izana, ezohiko deialdikoak barne.
- 4. Etapako ikasgai guztietan lortutako kalifikazioen batezbesteko aritmetikoa bost edo gehiago izatea. Kasu horretan, etaparen amaierako kalifikazioa kalkulatzeko, gainditu gabeko ikasgaiaren lortutako zenbakizko kalifikazioa hartu behar da kontuan.

3.- Batxilergoko titulua bakarra da, eta egindako modalitatea eta lortutako batez besteko kalifikazioa adierazita ematen da. Kalifikazio hori agindu honen 48.3 artikuluan ezarritako moduan kalkulatu behar da.

Beraz, Batxilergoko titulua eskuratuko dute 2.mailan ikasgai guztiak gaindituak dituzten ikasleak, baita salbuespenez, baldintza batzuk beteta eta irakasle taldeak horrela adostuta, ikasgai bat gainditu gabe duten ikasleek ere. Bestetik, 1.mailatik 2.mailara ikasgaiaren bat suspendituta igarotzen diren ikasleek, erreformatu-programa bat jarraitu beharko dute, sail didaktikoek horretarako espreski diseinaturik, gainditu gabeko ikasgaiak berreskuratu ahal izateko. Azkenik, 2.mailan ikasgaiaren bat gainditu gabe duten ikasleek (aurreko esaldian aipatutako salbuespenezko onarpena gauzatzen ez bada), hurrengo urtean ikasgai horietan matrikulatu edo maila osoa berriz egiteko aukera izango dute. Aginduan adierazitako epean Batxilergoa gainditzea lortzen ez duten ikasleek, hura Helduen Batxilergoan jarraitzeko aukera izango dute.

Ikasgaietako emaitzak kontuan hartzea.

	Batxilergoko titulaziorako Hezkuntza Sailak, 76/2023 dekretuaren eta Ebaluazio Aginduaren bidez, eskatzen dituen eginbideak eta irizpideak jarraitzen ditugu.
	Ikasle batek ikasgai bat edo batzuk gainditu gabe dituenean, Hezkuntza Sailak, 76/2023 dekretuaren eta Ebaluazio Aginduaren bidez, eskatzen dituen eginbideak eta irizpideak jarraitzen ditugu.
	Batxilergoko 2.mailan ikasleren bat 1.mailako gainditu gabeko ikasgai batekin edo birekin izanez gero, sail didaktikoak errekupeziarako diseinatutako errefortzu-programa martxan jartzen dugu eta ikasle horren garapenaren jarraipena eta ebaluazioa egiten dugu.
	Urteko errefortzu-programaren jarraipena egiteko, ikastetxe mailan adostutako txantiloiei eta prozedura batzuk erabiltzen ditugu.
	Ikasgai bat gainditu gabe eta salbuespenez titulatu dezaketen ikasleen inguruko erabakiak hartzeko Hezkuntza Sailak, Ebaluazio Aginduan (51.artikuluko 2.puntuan), jasotako irizpideak jarraitzen ditugu.
	Ikasgai bat gainditu gabe eta salbuespenez titulatu dezaketen ikasleen inguruko erabakiak hartzeko ikastetxe mailan irizpide batzuk zehaztuak ditugu, Ebaluazio Aginduko 51.artikuluko, 2.puntuak, a) atalean oinarrituta, irakasleek hartu beharreko erabakian laguntzen dutenak.
	Aurreko puntuan aipatutako irizpideak dokumentu batean jasoak ditugu eta hauen erabilera sistematizatu dugu.

Bestelako erabakiak...

Erabakien inplementazioa eta sistematizazioa

	Ikastetxe mailan promozioaren inguruan erabakiak hartzeko jarraitzen ditugun irizpideak bestelako dokumentu osagarrietan jasoak ditugu.
--	---

Dokumentu osagarrietara esteka...

Hobetzeko eman ditzakegun urratsak

Zein dira ikastetxe mailan promozio erabakiak hartzeko prozesuan hobetzeko eman ditzakegun urratsak?

Gogoratu antolaketak koherentzia horizontal eta bertikal bati (maila, zikloa, garapen maila...) erantzun behar diola

Formatu librean: promozio erabakiak (idatziz zein esteka bidez)

Gogoratu antolaketak koherentzia horizontal eta bertikal bati (maila, zikloa, etapa, garapen maila...) erantzun behar diola

Hausnarketarako eta prozesua aurrera eramateko eta erabakietan laguntzeko galderak.

- Promozioari dagokionez, ikastetxe bezala, zein da jarraitzen dugun bidea? Zein erabaki hartu ditugu bide horri ekiteko?
- Erabakiak hartzerakoan, legedietan, ebaluazio-aginduan eta dokumentazio akademikoan jasotakoa hartzen al dugu oinarri?

Idazteko lekua eta/edo dokumentu osagarrietara iristeko estekak...

Hobekuntza esparruak (ikasturte bukaeran betetzeko, egonez gero)	
25-26	
26-27	
27-28	
...	

HAUSNARKETA-GALDERAK

Zer ulertzen dugu gure ikastetxean aniztasunaren eta inklusioaren trataeratzat?

- Nola bermatzen dugu ikasle guztientzako aukera-berdintasuna, parte-hartzea eta inklusioa?
- Zein neurritan erantzuten diogu gure ikasleen aniztasunari?
- Nola islatzen da hori gure curriculum zehaztapenetan eta eguneroko praktikan?
- Nola uztartzen ditugu Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalaren (IDU) printzipioak?
- Nolakoa da gure lankidetzaren sare soziosanitarioekin edo gizarte zerbitzuarekin (Osakidetza, Gizarte Zerbitzuak...)?

Zertarako egiten dugu?

- Nola sustatzen dugu ikasle guztien garapen integrala eta ongizatea?
- Zein oztopo identifikatu ditugu ikaskuntzan eta zer egiten dugu horiek minimizatzeko?
- Zein estrategia ditugu ekitatea eta kalitatezko hezkuntza bermatzeko?
- Zein balio pertsonal eta sozial lantzen dira gure jardura eta proiektuetan (autonomia, erresilientzia, enpatia, konpromisoa...)?
- Nola laguntzen ditugu ikasleak beraiei potentziala garatzen eta bizitzako egoerei aurre egiten?

Nola eramaten dugu aurrera?

- Nola egiten dugu aniztasunaren eta inklusioaren diagnostiko partekatua?
 - o Zer egiten dugu gaur egun?
 - o Nola egiten dugu?
 - o Zer hobetu dezakegu?
- Diagnostikotik abiatuta, nola planifikatzen dugu esku-hartzea eta nork parte hartzen du?
- Nola lotzen dugu aniztasunaren trataera bizikidetzaren, irisgarritasun- eta hezkidetzaren planekin?
- Gure espazio eta baliabideak irisgarriak al dira ikasle, familia eta langile guztientzat?
- Nola txertatzen dugu Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala (IDU) gure curriculumaren diseinuan eta metodologia didaktikoetan?
- Nola neurtzen dugu egiten dugunaren eragina eta nola jasotzen dugu informazioa berrikusteko?
- Nola ziurtatzen dugu gure curriculumak eta metodologia didaktikoek aukera-berdintasuna eta aniztasunaren errespetua bermatzen dutela

ESTRATEGIA DIDAKTIKO ETA METODOLOGIKOAK

Taula betetzeko jarraibideak eta oharrak

Taula betetzerakoan hurrengo jarraibideak eta oharrak kontuan izan:

- Testuinguraketa: gaia kokatzeko eta gako-hitzak nabarmentzeko atala da. **Informatiboa**
- Hausnarketa-galderak: hausnarketarako eta prozesua aurrera eramateko atala da, baita erabakietan laguntzeko galderak jasotzeko atala ere. **Informatiboa**
- Hausnarketaren bidez hartutako ikastetxeko erabakiak (lotesleak): checklist formatuan, ikastetxean hartutako erabakiak markatzeko atala da. Ezkerreko zutabean X baten bidez adierazi behar da. Aukera bat baino gehiago markatu daiteke. Markatu gabe geratzen diren atalak hausnartu beharreko gaiak dira. **Derrigorrezkoa**
- Bestelako erabakiak...: ikastetxean gai horren inguruan hartutako bestelako erabakiak idatziz jasotzeko atala da. Formatu librean idatzi ahal izateko atala. **Hautazkoa**
- Erabakien justifikazioa...: gai horren inguruan hartutako erabakien justifikazioa idatziz jasotzeko atala. Formatu librean idatzi beharreko atala. **Derrigorrezkoa**
- Bestelako erabilerak...: ikastetxean gai horren inguruan egiten dituzuen bestelako erabilerak idatziz jasotzeko atala da. Formatu librean idatzi ahal izateko atala. **Hautazkoa**
- Ikastetxe bezala hartu beharreko erabakiak eta erantzun beharreko galderak (mailakako argazkia): mailaka edo zikloka hartutako erabakiak idatziz jasotzeko aukera ematen duen atala. **Hautazkoa**
- Erabakien inplementazioa eta sistematizazioa: checklist formatuan, ezkerreko zutabean X baten bidez adierazi eta, behar izanez gero, jada sortuako dokumentu osagarriak estekatzeko aukera ematen duen atala. **Derrigorrezkoa**
- Hobetzeko eman ditzakegun urratsak: diagnostikoa eginda, zer hobetu daitekeen eta hobekuntzarako bideak nola antolatu daitekeen idatziz jasotzeko atala da. **Derrigorrezkoa**
- Formatu librean: estrategia didaktiko eta metodologikoak (idatziz zein esteka bidez): ikastetxean jada hartutako hainbat erabaki idatziz jasotzeko atala da. Behar izanez gero, erabakien jasoketan laguntzen duten dokumentueta-
ra estekak jar daitezke. **Hautazkoa**
- Hobekuntza esparruak (ikasturte bukaeran betetzeko, egonez gero): ikasturtez ikasturte, kurtso bukaeran hurrengo ikasturtera begira hobekuntza-bideak atzematen badira, hemen jasotzeko atala da. **Hautazkoa**

Testuinguraketa

Ikastetxearen aukera metodologikoa aurrera eramateko, zein erabaki hartu behar dira estrategia didaktiko eta metodologikoekin lotuta, eta nola integra daiteke IDUa eguneroko praktikan?

Ikastetxearen aukera metodologikoa aurrera eramateko eta IDUa eguneroko praktikan integratzeko, erabaki garrantzitsuak hartu behar dira estrategia didaktiko eta metodologikoen inguruan, hezkuntza komunitatearen helburuak eta ikasleen behar anitzak kontuan hartuta. Horretarako, beharrezkoa da irakasle taldeak hausnarketa partekatua egitea, ikastetxearen testuinguruari eta ikasleen ezaugarriei egokitutako metodologia bateratu eta koherentea adostuz. IDU printzipioek ikasle guztien ikaskuntzarako oztupoak minimizatu eta ikasteko aukerak maximizatzea dute helburu; horregatik, ikasleen ikaskuntza prozesua pertsonalizatu eta inklusiboagoa bultzatu behar da. Horrek, inplikaziorako, errepresentaziorako eta gauzatzeko eta adierazteko aukeretan ikastetxe bezala zenbait estrategia zehaztea dakar.

Horrez gain, baliabide didaktikoen aukeraketa, espazioen eta denboraren antolaketa, eta ikasleen zein irakasleen rolen banaketa ere zehaztu behar dira, ikaskuntza prozesua ahalik eta aberatsena izan dadin.

Hausnarketa-galderak

- Eskolan nola egiten dugu lan? Non gaude eta nora goaz? Zer lortu nahi dugu?
- Zein da edo dira gure ikastetxean erabiltzen den edo diren metodologiak?
- Irakaslearen esku-hartzea nolakoa da? Zehaztuta dugu? Koordinatua eta bateratua da?
- Ikastetxe mailan identifikatu ditugun egiteko erak, metodologia aktiboek dituzten ezaugarriak bermatzea posible egiten dute?
- Planteatzen dugun metodologiak ikasleen motibazioa eta parte-hartzea sustatzen du? Konpetentzialki lan egiteko aukera eskaintzen du? Eta erabiltzen ditugun espazioek, baliabideek eta denborak?
- Derrigorrean metodologia batean bakarrik oinarritu behar gara? Posible da metodologia ezberdinez elikatzea?
- Zein da gure ikastetxeko hezkuntza eskaintzaren lotura metodologikoa? Nola bermatzen dugu hori horizontalean zein bertikalean?
- Zer egin daiteke ikastetxe bezala, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari lotuta, IDUa gure eguneroko praktikan integratzeko?
- Zeren bidez eskaintzen eta lantzen ditugu inplikaziorako aukerak? Eta errepresentaziorako zein gauzatzeko eta adierazteko aukerak?

Hausnarketaren bidez hartutako ikastetxeko erabakiak (lotesleak)

Gure ikastetxeak eskaintzen duen hezkuntza-eskaintzaren aukera metodologikoa, ondorengoan/etan elikatzen da: (argazki orokorra)

Haur Hezkuntza

	Mugimendu Autonomoa
	Proiektuak
	Txokoak
	Tailerrak
	Amara Berri

Bestelako erabakiak...

Erabakien justifikazioa...

Haur Hezkuntza

	Diziplinartekotasunean
	Proiektuak
	Txokoak
	Tailerrak
	Amara Berri
	Eremuak

Bestelako erabakiak...

Erabakien justifikazioa...

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

	Eremuak
	Proiektuak
	Tailerrak
	Amara Berri

Bestelako erabakiak...

Erabakien justifikazioa...

Batxilergoa

Proiektuak

Ikasgaiak

Bestelako erabakiak...

Erabakien justifikazioa...

Ikastetxeak dituen printzipio pedagogiko eta aukera metodologikoei erantzuteko, gure estrategia metodologikoei hurrengo ezaugarriak betetzen dituzte? (argazki orokorra)

Ikaslea bere ikaskuntzaren protagonista aktiboa izateko estrategiak erabiltzen ditugu.

Ikaskuntza soziala bultzatzen dugu. Beren arteko elkarrekin bilatzen dugu.

Ikasleek zeregin aktiboa izatea bilatzen dugu, ez informazio-hartzaile hutsarena.

Ikasleen interesak errespetatzen ditugu.

Aldez aurreko ezagutzak kontuan izaten ditugu.

Errealitatearekin lotura esanguratsuak egitea sustatzen dugu.

Barne eta kanpo motibazioa bultzatzea bilatzen dugu erabiltzen ditugun estrategien bidez.

Ikaskuntza-irakaskuntza prozesua irakasleen eta ikasleen arteko lankidetzan oinarritzen dugu.

Berrikuntza, sormena, ikaskuntza esanguratsua eta ezagutzaren eraikuntza bultzatzen dugu.

Ikaskuntzaren emaitzetan zentratzen gara, hau da, konpetentziak garatzen dituzten ardatz izaten dugu.

Goragoko mailako funtzio kognitiboak gauzatzeko estrategiak proposatzen ditugu.

Ikaskuntza autonomoa bultzatzeko estrategiak erabiltzen ditugu.

IKTen garrantzia eta ikasteko modu berriak garatzeko dituzten aukerak planifikatzen eta erabiltzen ditugu.

Lan kooperatiboa erabiltzen dugu, baita banakako zereginak proposatu ere.

Ikasleak etorkizuneko erronketarako prestatzen ditugu, erronken proposamena eta gauzatzearen bidez.

	Trebetasun prosozialak, komunikatiboak eta enpatikoak erabiltzen ditugu.
	Ebaluazioa estrategikoki eta ikaskuntza-irakaskuntza jarduerekin modu integratuan erabiltzen dugu.
	Aldez aurreko prestakuntza bultzatzeko uneak eskaintzen ditugu.
	Diziplina anitzeko curriculum-espazioak planifikatuak ditugu eta aurrera eramaten ditugu.
	Irakasleei ikastetxearen errealitatera egokitutako metodologia erabiltzeko aukera eskaintzen diegu.

Zein estrategia eta metodo erabiltzen ditugu aurreko atalean zehaztutako ezaugarriak aurrera eramateko?
(argazki orokorra)

Informatzailea

	Flipped Classroom
	Errealitate mistoa. Handitua+birtuala
	Visual Thinking
	Bideojolasetan oinarritutako ikaskuntza

Interaktiboa

	Gamifikazioa (Kahoot, Plickers...)
	Pentsamenduan oinarritutako ikaskuntza
	Berdinen arteko ikaskuntza-irakaskuntza

Elaboratzailea

	Bideojolasetan oinarritutako ikaskuntza (Scrath)
	Simulazioan oinarritutako ikaskuntza
	Gamifikazioa (Scape room)
	Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza (POI)
	Desing Thinking
	Zerbitzuan oinarritutako ikaskuntza
	Ikasketa kooperatiboa
	Hezkuntza-robotika
	Pentsamendu dibergentea eta sortzailea

Bestelako metodo eta estrategiak...	
-	-
-	-

Zein erabaki ditugu hartuta, metodologiaren ikuspegitik ikastetxean, espazioen, baliabideen eta denboraren erabileraren inguruan? (*argazki orokorra*)

Espazioaren erabilera

	Proiektuak, ikaskuntza kooperatiboa, txokoak, laborategiak... ahalbidetzeko espazio malguak eta egokituak antolatuak ditugu.
	Talde handiak, txikiak eta banakako lana egiteko espazio desberdinak aurreikusiak eta egokituak ditugu.
	Espazioak mugitzeko, elkarlanerako eta autonomia lantzeko aukerak eskaintzen dizkigu.
	Ditugun espazioen banaketa eta erabilera metodologiarekin koherentea da (adib. gela irekiak, txokoak, kanpo espazioak barne).

Bestelako erabilerak...

Baliabideen erabilera

	Ikaskuntza aktiboa, esperimental eta kolaboratiboa bultzatzeko baliabide anitzak (teknologikoak, manipulagarriak, ikus-entzunezkoak...) eskuragarri jartzen ditugu.
	Ikasleen behar eta interesetara egokitutako baliabideak eskaintzen ditugu (aniztasunari erantzuteko).
	Baliabide digitalen eta analogikoen arteko oreka metodologiaren arabera planifikatua dugu.
	Baliabideen erabilera irakasle eta ikasleen artean partekatua eta koordinatua dugu.
	Ikaskuntza-prozesuaren une bakoitzerako baliabideak (aurkezpena, esplorazioa, praktika, ebaluazioa) planifikatuak ditugu.
	Ikasleekin erabiltzen ditugun baliabide didaktikoak ikastetxean sortzen ditugu.
	Testuliburuak eta bestelako kanpo baliabide didaktikoak erabiltzen ditugu.

Bestelako erabilerak...

Denboraren erabilera

	Proiektua, ikerketa lana, talde-lana... egiten dugunean honen denboralizazioa aurreikusten dugu.
	Denboraren banaketa malgua egiten dugu, ikasleen erritmoetara eta jarduera motara egokitzeko.
	Jarduera motaren arabera (banakakoa, taldekakoa, aurkezpenak, eztabaidak) denboraren planifikazioa egiten dugu.

	Atsedean, trantsizio eta hausnarketarako uneak aurreikusten ditugu, ikaskuntza-prozesua osatzeko.
Bestelako ezaugarriak...	
Zer egiten dugu ikastetxe bezala aniztasunari erantzun eta IDU printzipioak praktikan jartzeko? <i>(argazki orokorra)</i>	
Inplikaziorako aukerak	
	Ikasleen interes pertsonaletatik abiatutako proiektu edo ikerketa txikiak proposatzen ditugu, motibazioa pizteko.
	Jarduerak egiteko aukera desberdinak eskaintzen ditugu: taldeka, bikoteka edo bakarka lan egiteko aukera eskainiz.
	Ikasleei jardueren diseinuan parte hartzeko aukera eskaintzen diegu: galderak proposatuz, gaiak aukeratuz edo jarduera baten formatua adostuz, adibidez.
	Erronka eta jolas bidezko jarduerak proposatzen ditugu, ikasleen parte-hartze aktiboa eta esfortzua bultzatzeko.
	Inguruneke baliabideak erabiltzen ditugu (eskolatik kanpoko irteerak, gonbidatuak, ikerketa lokalak) ikaskuntza esanguratsua lortzeko.
	Motibazio eta interesak pizteko baliabide digitalak, ikus-entzunezkoak edo gamifikazioa erabiltzen ditugu.
Bestelako erabilerak...	
Errepresentaziorako aukerak	
	Informazioa hainbat formatu eta euskarritan aurkezten dugu: testuak, irudiak, bideoak, audioak edo infografiak erabiliz, adibidez.
	Ikasleek ideiak antolatu eta harremanak ulertu ditzaten, kontzeptu mapak edo eskemak egitea proposatzen diegu, adibidez.
	Baliabide digital interaktiboak erabiltzen ditugu (simulazioak, bideo-tutorialak, aplikazio interaktiboak).
	Ikasleei informazioa euren hizkuntza edo estilo propioan adierazteko aukera ematen diegu (marrazkiak, ahozko azalpenak, maketak, gorputz adierazpena, etab. erabiliz, adibidez).
	Galdera irekiak eta eztabaidak bultzatzen ditugu, ikuspegi anitzak agertzeko.
Bestelako erabilerak...	
Gauzatzeko eta adierazteko aukerak	
	Ikasleei ikasitakoa ahoz, idatziz, marrazkien bidez edo bideo bidez adierazteko aukera ematen diegu.

	Proiektuak, maketak edo aurkezpen digitalak egiten ditugu, ikasle bakoitzaren gaitasun eta interesetara egokituz.
	Ikasleek euren lanak taldean edo bakarka aurkezten dituzte, ahozko eta komunikazio gaitasunak lantzeko.
	Azken ekoizpenean formatu anitzak erabiltzeko aukera eskaintzen dugu: posterra, infografia, podcast-a, komikia edo blog-sarrera bat sortzea, adibidez
	Ikasitakoa zereginen bidez aplikatzeko aukera eskaintzen dugu (problema praktikoak, simulazioak, esperimentuak) ikasleen adierazpen gaitasuna garatzeko.

Bestelako erabilerak...

Metodologiaren ikuspegitik irakasleen esku-hartze bateratuaren inguruan hurrengo erabakiak hartuak ditugu (argazki orokorra)

	Eguneroko jardueretan eta ikasgelako dinamiketan irizpide bateratuak ezarriak ditugu, hala, hizkuntzaren erabilerari dagokionez, elkarrekintzari dagokionez, etab.
	Maila bereko talde ezberdinetan lantzen dena planifikatua eta bateratua dugu eta horren aldiroko jarraipena egiten dugu.
	Gelan eman daitezkeen egoera ezberdinen aurrean (jarrera, atzeraelikadura emateko erak...) erantzun bateratuak emateko estrategiak adostuak ditugu.
	Aldez aurretik zehaztu eta diseinatuta ditugun tresna eta erreminten erabilera koordinatua egiten dugu. Horretarako hauek noiz eta nola erabiliko ditugun definituak dugu, aldez aurretik.
	Lortutako emaitzak taldean alderatzen ditugu, desadostasunak aztertzen ditugu eta ebidentzietatik abiatutako hobekuntza prozesuak martxan jartzen ditugu.
	Tarteka kasu errealak, taldean (maila, zikloa, mintegia...), aztertzen ditugu, irakasleen artean irizpideen eta egiteko eren antzeko irakurketa egiten dugula ziurtatzeko.

Bestelako erabilerak...

Ikastetxe bezala hartu beharreko erabakiak eta erantzun beharreko galderak (mailakako argazkia)

Mailaka edo zikloka hartutako erabakiak bertan idatzi, nahi izanez gero.

HH 2	HH 3
HH 4	HH 5
LH 1. maila	LH 2. maila

LH 3. maila	LH 4. maila
LH 5. maila	LH 6. maila
DBH 1. maila	DBH 2. maila
DBH 3. maila	DBH 4. maila
BATX 1. maila	BATX 2. maila

Erabakien implementazioa eta sistematizazioa

	Aurreko puntuetan aipatutako erabakiak Programazio Didaktikoetan jasoak ditugu eta egiten denaren jarraipena egiten dugu.
	Aurreko puntuetan aipatutako erabakiak ikasegoeretan jasoak ditugu eta egiten denaren jarraipena egiten dugu.
	Aurreko puntuetan aipatutako erabakiak bestelako dokumentu osagarrietan jasoak ditugu.

Dokumentu osagarrietara esteka...

Hobetzeko eman ditzakegun urratsak

Zein dira ikastetxe mailan erabiltzen ditugun tresnen eta erreminten erabileran hobetzeko eman ditzakegun urratsak?

Gogoratu antolaketa koherentzia horizontal eta bertikal bati (maila, zikloa, garapen maila...) erantzun behar diola.

-
-
-

Formatu librean: tresnak eta erremintak
(idatziz zein esteka bidez)

Gogoratu antolaketa koherentzia horizontal eta bertikal bati (maila, zikloa, etapa, garapen maila...) erantzun behar diola.

Hausnarketarako eta prozesua aurrera eramateko eta erabakietan laguntzeko galderak.

- Eskolan nola egiten dugu lan? Non gaude eta nora goaz? Zer lortu nahi dugu?
- Zein da edo dira gure ikastetxean erabiltzen den edo diren metodologiak?
- Irakaslearen esku-hartzea nolakoa da? Zehaztuta dugu? Koordinatua eta bateratua da?
- Ikastetxe mailan identifikatu ditugun egiteko erak, metodologia aktiboek dituzten ezaugarriak bermatzea posible egiten dute?
- Planteatzen dugun metodologiak ikasleen motibazioa eta parte-hartzea sustatzen du? Konpetentzialki lan egiteko aukera eskaintzen du? Eta erabiltzen ditugun espazioek, baliabideek eta denborak?
- Derrigorrean metodologia batean bakarrik oinarritu behar gara? Posible da metodologia ezberdinez elikatzea?
- Zein da gure ikastetxeko hezkuntza eskaintzaren lotura metodologikoa? Nola bermatzen dugu hori horizontalean zein bertikalean?
- Zer egin daiteke ikastetxe bezala, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari lotuta, IDUa gure eguneroko praktikan integratzeko?
- Zeren bidez eskaintzen eta lantzen ditugu inplikaziorako aukerak? Eta errepresentaziorako zein gauzatzeko eta adierazteko aukerak?

Idazteko lekua eta/edo dokumentu osagarrietara iristeko estekak...

Hobekuntza esparruak
(ikasturte bukaeran betetzeko, egonez gero)

25-26	
26-27	
27-28	
...	

Programazio didaktikoak egiteko irizpideak

T.O. 22 Programazio didaktikoak

PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAK

Taula betetzeko jarraibideak eta oharrak

Taula betetzerakoan hurrengo jarraibideak eta oharrak kontuan izan:

- Testuinguraketa: gaia kokatzeko eta gako-hitzak nabarmentzeko atala da. **Informatiboa**
- Hausnarketa-galderak: hausnarketarako eta prozesua aurrera eramateko atala da, baita erabakietan laguntzeko galderak jasotzeko atala ere. **Informatiboa**
- Hausnarketaren bidez hartutako ikastetxeko erabakiak (lotesleak): checklist formatuan, ikastetxean hartutako erabakiak markatzeko atala da. Ezkerreko zutabean X baten bidez adierazi behar da. **Derrigorrezkoa** Hezkuntza Sailak proposatzen duen txantiloia erabiltzen bada, ez dira hurrengo atalak bete behar eta ikastetxean propio sortutako txantiloia erabiltzen bada, horrek betetzen dituen ezaugarriak markatu, X baten bidez, hurrengo errenkade-tako ezkerreko zutabean. **Derrigorrezkoa, ikastetxean sortutako txantiloia erabiltzen bada**
- Bestelako erabakiak...: ikastetxean gai horren inguruan hartutako bestelako erabakiak idatziz jasotzeko atala da. Formatu librean idatzi ahal izateko atala. **Hautazkoa**
- Erabakien justifikazioa...: gai horren inguruan hartutako erabakien justifikazioa idatziz jasotzeko atala. Formatu librean idatzi beharreko atala. **Derrigorrezkoa**
- Hobekuntza esparruak (ikasturte bukaeran betetzeko, egonez gero): ikasturtez ikasturte, kurtso bukaeran hurrengo ikasturtera begira hobekuntza-bideak atzematen badira, hemen jasotzeko atala da. **Hautazkoa**

Testuinguraketa

Zein irizpide jarraitu behar dira programazio didaktikoetan?

Ikastetxe mailan programazio didaktikoak egiteko, irakasleek elkarlanean eta koordinatuta lan egin behar dute, ikastetxearen hezkuntza-proiektuari eta testuinguruari egokituta, curriculumean ezarritako elementuak eta osagaiak (hala nola, funtsezko konpetentziak, konpetentzia-espezifikoak, ebaluazio-irizpideak, oinarrizko jakintzak, metodologia, baliabideak, aniztasunari erantzuteko jarduerak eta ebaluazioa) sistematikoki planifikatuz eta jasoz. Formatua ikastetxe bakoitzak egokitu dezake, baina beti ere araudiak jasotako osagaiak barne hartuz.

Hausnarketa-galderak

- Ikastetxe mailan hartutako erabakiak programazio didaktikoetan isla dute?
- Nola bermatzen dugu IHPko erabakiak gure programazio didaktikoetan lekua izatea?
- Zein formatutan jasotzen ditugu programazio didaktikoak?
- Ikastetxe bezala formatua erabakita dugu?
- Erabiltzen dugun formatuak bermatzen ditu osagai guztiak bertan islatzea?
- Egindako programazio didaktikoak ikasturtean zehar berrikusten ditugu?

Hausnarketaren bidez hartutako ikastetxeko erabakiak (*lotesleak*)

Nola bermatzen dugu IHPko erabakiak gure programazio didaktikoetan lekua dutela?

	Ikastetxeko IHPa eta proiektu eta plan nagusiak irakasleen esku jartzen ditugu.
	Klaustro mailan IHPa eta ikastetxeko proiektu eta plan nagusiak aztertzen ditugu.
	Eginda dauden eta ikasturte hasieran errebisatzen diren programazio didaktikoetan ikastetxeko erabakiak jasoak daudela aztertzen dugu. Ezezkoaren kasuan egokitzapenak egiten ditugu.
	Berriak diren programazio didaktikoetan (ikasgaia berria delako, eremu bat sortu delako, diziplinarteko proiektu bat martxan jarri dugulako...), ikastetxeko erabaki nagusiak oinarri dira.
	Ikastetxean lan horren errebisioa egiteko arduradun bat izendatua dugu.
	Irakasle bakoitzaren esku uzten dugu.
	Ziklo, maila edo mintegietan aztertzen dugu.

Bestelako erabilerak...

Ikastetxe bezala programazio didaktikoak egiteko amankomuna den txantiloia dugu?

	Bai. Programazio didaktikoak egiteko amankomuneko txantiloia erabiltzen dugu.
	Ez. Ez dugu amankomuneko txantiloirik.

Zein txantiloia erabiltzen dugu?

	Hezkuntza Sailak eskainitako txantiloia.
	Ikastetxean propio sortutakoa.

Ikastetxeak propio sortutako txantiloia hurrengo ezaugarriak ditu? (*Ebaluazio agindua. 8. artikulua -Programazio didaktikoak*)

	Etapako irteera-profilari lotutako funtsezko konpetentziak (Irteera-profila soilik Oinarrizko Hezkuntzan eta Batxilergoan).
--	---

	Arlo, jakintzagai edo eremuen konpetentzia espezifikoak.
	Konpetentzia espezifikoei lotutako ebaluazio-irizpideak.
	Arlo, jakintzagai edo eremuei lotutako oinarrizko jakintzak.
	Estrategia didaktikoak eta metodologikoak.
	Ikasleen aniztasunari erantzuteko, errefortzurako edo hedapenerako jarduera orokorrak.
	Ebaluazioa.
	Programazio didaktikoak eta irakasle-jarduna berrikusteko, ebaluatzeko eta aldatzeko mekanismoak, emaitza akademikoekin eta hobetzeko prozesuekin lotuta.

Erabakien justifikazioa...

Hobekuntza esparruak (ikasturte bukaeran betetzeko, egongo balira)	
25-26	
26-27	
27-28	
...	

Ikasegoerak egiteko irizpideak

 T.O. 23 Ikasegoerak

IKASEGOERAK (HH, OH ETA BATX)
Taula betetzeko jarraibideak eta oharrak

Taula betetzerakoan hurrengo jarraibideak eta oharrak kontuan izan:

- Testuinguraketa: gaia kokatzeko eta gako-hitzak nabarmentzeko lekua. **Informatiboa**
- Hausnarketa galderak: hausnarketarako eta prozesua aurrera eramateko eta erabakietan laguntzeko galderak. **Informatiboa**

- Hausnarketaren bidez hartutako ikastetxeko erabakiak (lotesleak): checklist formatuan, ikastetxean hartutako erabakiak markatzeko atala da. Ezkerreko zutabean X baten bidez adierazi behar da. **Derrigorrezkoa** Hezkuntza Sailak proposatzen duen txantiloia erabiltzen bada, ez dira hurrengo atalak bete behar eta ikastetxean propio sortutako txantiloia erabiltzen bada, horrek betetzen dituen ezaugarriak markatu, X baten bidez, hurrengo errenkadetako ezkerreko zutabean. **Derrigorrezkoa, ikastetxean sortutako txantiloia erabiltzen bada**
- Bestelako erabakiak...: ikastetxean gai horren inguruan hartutako bestelako erabakiak idatziz jasotzeko atala da. Formatu librean idatzi ahal izateko atala. **Hautazkoa**
- Erabakien justifikazioa...: gai horren inguruan hartutako erabakien justifikazioa idatziz jasotzeko atala. Formatu librean idatzi beharreko atala. **Derrigorrezkoa**
- Hobekuntza esparruak (ikasturte bukaeran betetzeko, egonez gero): ikasturtez ikasturte, kurtso bukaeran hurrengo ikasturtera begira hobekuntza-bideak atzematen badira, hemen jasotzeko atala da. **Hautazkoa**

Testuinguraketa

Zeintzuk irizpide jarraitu behar dira ikasegoerak egiteko?

Ikastetxe mailan ikasegoerak programazio didaktikoaren barneko elementu gisa diseinatu behar dira, non ikasgelako errealitatea eta testuingurua abiapuntu hartuta, ikasleei funtsezko konpetentziekin, konpetentzia espezifikoekin eta ebaluazio-irizpideei lotutako jarduerak garatzeko egoerak proposatzen zaizkien. Prozesu hone-tan, 75/2023, 76/2023 eta 77/2023 Dekretuen eranskinak kontuan hartu behar dira, eta ikasegoerak ez dira modu isolatuan ulertu behar; baizik eta ebaluazio eta promozio erabakiekin bat etorritz, ikasleen ikaskuntza aktiboa eta inklusiboa bermatuz. Horrez gain, ikasegoeren diseinua espiral baten moduan ulertu behar da, non erabaki eta jarduera bakoitzak beste batzuei eragiten dien, eta prozesua etengabe egokitzen eta hobetzen den, konpetentzien garapena eta ikasgelako eguneroko jarduna koherentziaz eta jarraitasunez uztartuz.

Hausnarketa-galderak

- Programazio didaktikoetan jaso diren IHPko erabakiak ondoren ikasegoeran islatzen dira?
- Zein formatutan jasotzen ditugu ikasegoerak?
- Ikastetxe bezala formatua erabakita dugu?
- Erabiltzen dugun formatuak bermatzen digu osagai guztiak bertan islatzea?

Hausnarketaren bidez hartutako ikastetxeko erabakiak (lotesleak)

Nola bermatzen dugu programazio didaktikoetan jasotako IHP erabakiak ikasegoeretan txertatzen ditugula?

Eginda dauden eta ikasturte hasieran errebisatzen diren ikasegoeretan programazio didaktikoetan jasotako ikastetxeko erabakiak txertatua daudela aztertzen dugu. Ezezkoaren kasuan egokitza-penak egiten ditugu.

Ikasegoera berriak diseinatzerakoan (ikasgaia berria delako, eremu bat sortu delako, diziplinarteko proiektu bat martxan jarri dugulako...), programazio didaktikoetan jasotako ikastetxeko erabaki nagusiak txertatzen ditugu.

	Irakasle bakoitzaren esku uzten dugu.
	Ziklo, maila edo mintegietan aztertzen dugu.
	Ikastetxean lan horren errebisioa egiteko arduradun bat izendatua dugu.

Bestelako erabilerak...

Ikastetxe bezala ikasegoerak egiteko amankomuna den txantiloia dugu?

	Bai. Ikasegoerak egiteko amankomuneko txantiloia erabiltzen dugu.
	Ez. Ez dugu amankomuneko txantiloirik.

Zein txantiloia erabiltzen dugu?

	Hezkuntza Sailak eskainitako txantiloia.
	Ikastetxean propio sortutakoa.

Ikastetxeak propio sortutako txantiloia hurrengo ezaugarriak ditu? (HH)

75/2023 dekretua. (HH) III. eranskina

	Testuingurura ongi egokitzen da eta haurren garapen integrala (dimentsio guztietan) ahalbidetzen du.
	Haurren potentzialtasunak, interesak eta beharrak kontuan hartzen ditu.
	Ikasegoeran proposatzen den esku-hartzea aurretik maisu-maistren artean hausnartua eta adostua izan da.
	Ikasegoeretan jasotzen direnak haurraren ikasteko interesa pizteko xedea dute. (Galderak egiteko ohitura suspertzea, aurkitzen dituen eta errealitatean jardutera edo esku hartzera bultzatzen duten egoerei sormenezko erantzunak bilatu eta aurkitzeko trebetasuna garatzea.).
	Prozesuaren garrantziari erreparatzen behar zaio; erronketatik, galdera argi eta zehatzetatik abiatuta.
	Ikasegoerek haurrari bere nortasuna eraikitzen lagunduko dioten testuinguruak eskaintzen dituzte, haurrari haurrak miatzeko, esperimintatzeko, ondorioztatzeko, ulertzeko eta, azken batean, esperientzia aberatsak bizitzeko aukerak eskainiz.
	Ikasegoerek haurren autoerregulaziorako aukera eskaintzen dute.
	Adinaren eta garapen-mailaren arabera antolatutak daude, norberaren inklusioa, aniztasuna eta ibilbidea ahalbidetzeko.
	Erronka edo problema planteatzen du, haurren adinaren eta garapenaren arabera, eta erronka edo problema hori sormenez ebazteak etapa antolatzen den hiru arloetako ikaskuntzak modu integratuan mobilizatzea eskatzen du.
	Erronka edo problemari erantzuteko zenbait zeregin eta jarduera planteatzen ditu.

	Lortu nahi diren helburuak argi azaltzen dira eta eta helburu horiek lortzeak oinarritzko jakintza multzoa integratzea dakar.
	Diseinuan, haurren baldintza pertsonalak, sozialak edo kulturalak hartzen dira kontuan.

Erabakien justifikazioa...

Ikastetxeak propio sortutako txantiloiak hurrengo ezaugarriak ditu? (OH eta BATX)

77/2023 dekretua. (OH) V. eranskina / 76/2023 dekretua. (BATX) III. eranskina

	Ikas-egoeraren identifikazioa (arlo inplikatuak, ikasle hartzaileak, saio kopurua, titulua...).
--	---

Ikas-egoeraren esparrua edo ikuspegia:

	Testuingurua: pertsonala, soziala, akademikoa, kokatzen den ingurunea deskribatzen duena.
	Abiapuntu gisa baliagarria den problema, erronka, desafioa edo galdera: erantzuna edo irtenbidea eman behar zaion testuingurutik sortzen dena.
	Espero den produktua zehazten duen amaierako zeregina.

Ikas-egoeraren curriculum- eta antolamendu-elementuak:

	Curriculumaren justifikazioa edo argudioa, adieraziko dituen funtsezko konpetentziekiko lotura, inplikaturako arlo edo ikasgaien konpetentzia espezifikoak, ebaluazio-irizpideak eta curriculumaren funtsezko jakintzak.
	Faseen arabera antolatutako jardueren proposamena: hasierako fasea, garapeneko eta amaierakoa. Ikaskuntza-jarduerena zein ebaluazio-jarduerena. Barnean dela IDUa.
	Antolaketa, metodologiak eta baliabideak: 1- Espazioen erabilera. / 2- Hautatutako printzipio eta estrategia metodologikoak. Taldekatzeko moduak eta talde-lana. / 3- Baliabide pertsonalak eta materialak, ingurune analogikokoak eta digitalekoak.
	Ebaluazio-prozesuak eta -tresnak: Ebaluazio-tresna analogikoen eta digitalen erabilera.

Erabakien justifikazioa...

Hobekuntza esparruak

(ikasturte bukaeran betetzeko, egongo balira)

25-26	
26-27	
27-28	
...	

IRTEERA PROFILA. ONDORIOAK

Taula betetzeko jarraibideak eta oharrak

Taula betetzerakoan, ondorengo jarraibideak eta oharrak kontuan izan:

- Testuinguraketa: gaia kokatzeko eta gako-hitzak nabarmentzeko atala da. **Informatiboa**
- Bidea egin ostean, zein da gure uneko egoera? (Ondorioak): checklist formatuan, ikastetxean curriculumaren ezarpenean egindako bidearen inguruan hausnartzeko atala. Ezkerreko zutabea X baten bidez adierazi behar da. **Derrigorrezkoa**
- Egoeraren justifikazioa...: proposatutako bidea eta hausnarketak egin ostean, ikastetxean uneko egoeraren arrazoiak idatziz jasotzeko atala. Formatu librean idatzi beharreko atala. **Derrigorrezkoa**

Testuinguraketa

Nola eragiten dute IHPn hartzen diren erabakiek ikasleen irteera-profilean, eta zergatik da garrantzitsua erabaki horiek koherentziaz eta modu integratuan aplikatzea ikastetxeko eguneroko jardunean?

IHPn hartzen diren erabakiak ikaslearen prestakuntzaren ipar bilakatzen dira. Erabakiak ezin dira era isolatuan hartu, baizik eta elkarren arteko koherentziaz eta integrazioz eraikitzen dira, ikastetxearen norabidea eta identitatea zehaztuz. Erabaki bakoitzak beste guztiei eragiten die, eta, ondorioz, ikastetxe moduan hartzen den norabideak zuzenean baldintzatzen du ikaslearen irteera-profila: hau da, ikasleak pertsona oso, autonomo eta gizartearekiko konprometitu gisa heztea da xedea. Horregatik, ezinbestekoa da IHPn jasotako printzipio, balio eta helburuak koherentziaz eta malgutasunez uztartzea, programazio didaktikoetan eta ikasegoeretan modu praktikoan txertatuz, betiere ikasleen behar eta testuingurura egokituta. Prozesu honetan, irakasleen lankidetzak eta konpromisoa funtsezkoak dira, euren esku-hartzea bateratua eta arduratsua izanik.

Bidea egin ostean, zein da gure uneko egoera? (ondorioak)

Bidean hartutako erabakiekin eta egindako hausnarketekin, irteera-profila osatzen duten funtsezko konpetentziak gure ikastetxeko praktikan integratuak ditugula uste dugu?

5. Ardatza: Irakasleak eraldaketa prozesuaren ardatz gisa

 G.O. 4 Irakasleen etengabeko garapena

Zein irizpideren arabera planifikatzen ditu ikastetxeak irakasleen prestakuntza

Hausnartzeko galdera posibleak

- Nola lotzen da eskaintzen den prestakuntza Ikastetxeko Urteko Planarekin (IUP) eta hezkuntza-proiektuarekin?
- Zein neurri hartzen dira prestakuntza ikastaroetan ikasitakoa praktikan txertatzeko eta jarraipena egiteko?
- Zein formatutako prestakuntza da eraginkorrena gure ikastetxearen errealitatean (ikastaroak, jardunaldiak, esperientzia-trukeak...)?
- Nola bultzatzen da irakasleen arteko hausnarketa eta autoebaluazio kultura ikastetxean?
- Zein mekanismo daude norberaren eta taldearen praktika pedagogikoen ebaluazioa egiteko?
- Nola erabiltzen dira hausnarketatik ateratako ondorioak hurrengo plangintzetan edo IUPean?
- Zer paper jotatzen du zuzendaritza-taldeak hausnarketa kolektiboa sustatzeko?
- Baditu gure ikastetxeak mentoretza edo coaching programak irakasleen artean esperientzia partekatzeke?
- Nola egituratzen da irakasle berrien harrera eta laguntza-prozesua?
- Zer irizpide jarraitzen dira mentore edo laguntzaileak hautatzeko eta haien lana baloratzeko?
- Zein onura izan ditzake mentorizazio egituratu batek ikastetxeko kohesioan eta irakasleen garapenean?
- Zein mekanismo daude ikasitakoa eta berrikuntzak talde osoan zabaltzeko eta sistematizatzeko?
- Nola ebaluatzen da garapen profesionalak irakasleen ikaskuntza eta emaitzetan duen eragina?



Ekitatea eta gizarte-kohesioa

Ekitatearen eta gizarte kohezioaren dimentsioak hezkuntza-sistemaren balio sozial eta etikoak islatzen ditu. Ikastetxe inklusibo eta bidezko batek ikasle guztien beharrak kontuan hartzen ditu, bakoitzaren aniztasuna aberastasun gisa ulertuta. Aldi berean, bizikidetza, hezkidetza eta ongizate emozionalaren aldeko lanak komunitate seguru, parte-hartzaile eta osasuntsuak eraikitzen ditu, non ikaskuntza eta elkarbizitza uztartzen diren.

6. Ardatza: Ekitatea eta inklusioa

 G.O. 4 Irakasleen etengabeko garapena

HAUSNARKETARAKO GALDERAK

Nola ulertzen dugu inklusioa gure ikastetxean?

- Nola bermatzen dugu ikasle guztiek kalitatezko hezkuntza jasotzea, bakoitzaren gaitasunak garatzeko behar dituen baliabideekin?
- Zein puntutan islatzen da gure praktikan “ikasle guztien garapen osoa” bultzatzeko konpromisoa?
- Nola laguntzen diogu ikasle bakoitzari bere ahalmen pertsonalak ahalik eta gehien garatzen?

Zein konpromiso hartu du ikastetxeko hezkuntza-komunitateak inklusio printzipioekin?

- Nola sustatzen dugu jarrera eta kultura partekatu bat hezkuntza inklusiboaren inguruan?
- Nola bermatzen dugu eragile guztien (ikasle, familia, irakasle, komunitatea) parte-hartze aktiboa eta koordinatua?
- Nola integratzen dugu ikuspegi hau gure ikastetxeko plangintzan eta proiektuetan?

Eskola inklusiboaren hiru oinarriak: nola gauzatzen dira gure ikastetxean?

- Presentzia: ikasle guztiek gure eskolako jardueretan benetan parte hartzen al dute? Zer oztopo identifikatzen ditugu?
- Parte-hartzea: ikasle guztiek aukera berdinak al dituzte ikaskuntza-esperientzia aberasgarrietan parte hartzeko?
- Ikaskuntzaren emaitzak: nola jarraitzen dugu ikasleen garapen pertsonala eta ikaskuntza-aurrerapena? Zein adierazle erabiltzen ditugu?

Zein irizpide eta ekintza-ildo ditugu gure eskola gero eta inklusiboagoa izan dadin?

- Nola identifikatzen ditugu ikaskuntzarako eta parte-hartzerako oztopoak?
 - Zein mekanismo ditugu hezkuntza-laguntzako premiak goiztiarrak hautemateko?
 - Gure baliabide pertsonal eta materialak antolatzean kontuan hartzen ditugu irizpide inklusiboak?
-

7. Ardatza: Bizikidetza, hezkidetza eta ongizate sozioemozionala

 G.O. 6 Bizikidetza, hezkidetza eta ongizate sozioemozionala

HAUSNARKETARAKO GALDERAK	
Bizikidetza plana	Zer ulertzen dugu bizikidetza positiboaren ikuspegiaz gure ikastetxean? ▪ Nolakoa da gure ikastetxean bizikidetzaren inguruko kultura eta giro orokorra? ▪ Zein balio nagusi sustatzen ditugu (errespetua, elkartasuna, tratu ona, enpatia...)? ▪ Zein neurrian da gure eskola ingurune seguru bat ? Nola lantzen dugu bizikidetza ikasleen hezkuntza-prozesuan? ▪ Zein tresna eta baliabide ditugu ikastetxean (adib. Bizikidetza Plana, BAT taldea, protokoloak...) eta nola garatzen ditugu? ▪ Zein puntutan txertatzen da bizikidetza curriculumaren eta tutoretzaren eguneroko jardunean? ▪ Nola garatzen dugu konpetentzia emozionala: autoestimua, entzute aktiboa, asertibitatea, erresilientzia, enpatia... ▪ Zer egiten dugu bizikidetzaren prebentziorako eta probentziorako ikuspegi sistematikoa izan dadin? ▪ ...
	▪ Zelan ulertzen dugu hezkidetza zer den gure ikastetxean? ▪ Nola bermatzen dugu pertsona guztien aukera- eta tratu-berdintasuna, generoaren, sexu-orientazioaren edo identitatearen arabera diskriminaziorik gabe? ▪ Nola lantzen dugu hezkidetzaren ikuspegia curriculumaren eta tutoretzaren bitartez? ▪ Ba al dugu Hezkidetza Plana sistematikoki inplementatuta? ▪ Zein puntutan dago gure lankidetza Hezkidetza esparruan beste erakundeekin? ▪ Nola prebenitzen ditugu indarkeria matxistaren eta genero-desberdintasuna gure ikastetxean? ▪ Zein jarraibide edo protokolo ditugu horrelako egoeretan jarduteko? ▪ Nola lantzen dugu tratu ona, errespetua eta berdintasuna ikasleekin? ▪ Zein eredutan eta jardueratan ikusten dira genero-ikuspegia eta hezkidetza gure ikastetxeko hezkuntza-praktikan? ▪ ...

Tutore- Orientazio Plana	Zein da gure tutoretza-ereduaren oinarria? ▪ Nola antolatuta dago tutoretza gure ikastetxean (maiztasuna, koordinazioa, helburuak...)? ▪ Nola laguntzen ditugu ikasleak tutoretzatik beraien garapen pertsonalean, sozial eta emozio- nalean? Nola lantzen dugu ongizate emozionala tutoretzatik? ▪ Zein gai, jarduera edo tresna erabiltzen ditugu ikasleen ongizatea eta emozioen kudeaketa lantzeko? ▪ Zein metodologia erabiltzen dugu ikasleen konpetentzia emozionala garatzeko? ▪ Nola identifikatzen ditugu ongizateari lotutako zailtasunak eta nola esku hartzen dugu? Nola inplikatzten ditugu familiek eta komunitateak prozesu honetan? ▪ Nola koordinatzen gara familien eta inguruko eragileen artean zaintza eta ongizatea lantzeko? ▪ Zein espazio edo komunikazio-kanal erabiltzen ditugu konfiantza eta elkarlan hori indartzeko? ▪ Nola txertatzen dugu hezkuntza emozionalaren ikuspegia komunitate osoan (irakasleak, ikas- leak, familiak...)? ▪ ...
---	---



Etengabeko hobekuntza eta jasanga- rritasuna

Etengabeko hobekuntzaren eta iraunkortasunaren dimentsioak ikastetxearen garapen estrategiko eta berritzailea bultzatzen du. Digitalizazioaren eta jasangarritasunaren ikuspegiak etorkizuneko hezkuntza eraikitzen laguntzen dute, baliabideen erabilera arduratsua eta berrikuntza teknologikoa uztartuz. Nazioartekotzeak, bestalde, ikasle eta irakasleei mundu globalizatuan konektatzeko eta ikasteko aukerak eskaintzen dizkie. Eta ebaluazioaren eta berrikuntzaren kulturak ziurtatzen du ikastetxearen jarduna etengabe aztertzen, hobetzen eta berritzen dela.

8. Ardatza: Digitalizazioa eta jasangarritasuna

JASANGARRITASUNA

G.O. 7 Jasangarritasuna

Galdera posibleak:

- Zein dira gure ikastetxearen indargune nagusiak jasangarritasunaren arloan?
- Zein dira oraindik garatu beharreko erronka nagusiak?
- Zein urrats eman beharko lirateke hurrengo ikasturteetan jasangarritasunaren kultura sendotzeko?
- Nola bermatu daiteke jasangarritasuna ez izatea proiektu isolatu bat, baizik eta ikastetxearen funtzionamenduaren parte iraunkorra?

DIGITALIZAZIOA

G.O. 8 Garapen digitala

Galdera posibleak:

- Ba al du gure ikastetxeak Digitalizazio Plan eguneratu eta partekatua?
- Zein prozesu jarraitzen da IPD diseinatzeko eta eguneratzeko?
- Nork parte hartzen du planaren diseinuan (zuzendaritza, irakasleak, IKT arduraduna, familiak...)?
- Zein helburu digital estrategiko ezarri dira gure testuingururako egokituak?
- Zein dira ikastetxean teknologia digitalaren erabileraren lehentasunak irakaskuntzan eta ikaskuntzan?

Irakasleen eta ikasleen gaitasun digitalak garatzeko:

- Nola garatzen dira irakasleen gaitasun digitalak (DigCompEdu markoaren arabera)?
- Zein prestakuntza-behar antzeman dira irakasleen artean?
- Nola sustatzen da ikasleen gaitasun digital konpetente eta arduratsua (DigComp markoaren arabera)?
- Nola baloratzen da ikasleen gaitasun digitalen garapena ikaskuntza-prozesuan?
- Zer estrategia erabiltzen da familien prestakuntza eta sentsibilizazioa lantzeko ingurune digitalaren erabilerari dagokionez?

Ikastetxeko datu-babesaren protokoloa

- Ba al du gure ikastetxeak Datu-babesaren protokolo eguneratua eta ezarrita?
- Zein neurri tekniko eta antolakuntza-neurri erabiltzen dira ikasleen eta langileen pribatutasuna bermatzeko?
- Nola bermatzen da GDPR eta LOPDGDD araudia betetzen dela?
- Nola egiten da zibersegurtasunaren kudeaketa eta arriskuaren prebentzioa ikastetxean?
- Zein estrategia erabiltzen dira hezkuntza-komunitatea sentsibilizatzeko (ikasleak, irakasleak, familiak) datuen babesaren inguruan?
- Hona hemen [GDPR \(Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra\)](#) eta [Espainiako Datuen Babeserako Legea \(LOPDGDD\)](#).

9. Ardatza: nazioartekotzea

G.O. 9 Nazioartekotzea

Galdera posibleak:

- Parte hartu al du gure ikastetxeak inoiz Erasmus+ proiektu batean? Zein emaitza edo ikaskuntza atera dira?
- Ezagutzen eta erabiltzen al da eTwinning gure ikastetxean? Zein mailatan?
- Zein onura eskaintzen dizkie eTwinning proiektuek gure ikasleei eta irakasleei?
- Nola sustatu daiteke irakasleen artean eTwinning proiektuetan parte hartzeko interesa eta prestakuntza?
- Zein diziplina edo arloetan izan liteke errazagoa eTwinning proiektuak abiatzea gure ikastetxean?
- Nola sar daitezke eTwinning proiektuak ikastetxeko curriculum eta proiektu pedagogikoetan?
- Zein da gure ikastetxearen indargunea nazioartekotze-proiektuak garatzeko?
- Zein da gure erronka nagusia nazioartekotzearen arloan?
- Zer urrats estrategiko eman beharko genituzke hurrengo urteetan nazioarteko proiektzioa sendotzeko?
- Nola neurtu eta partekatu dezakegu nazioartekotze-proiektuen inpaktua gure komunitatean?

10. Ardatza: Ebaluazioaren eta berrikuntzaren kultura

 G.O. 10 Ebaluazioaren eta berrikuntzaren kultura

EBALUAZIOAREN KULTURA: EMAITZAK

Galdera posibleak:

A— Emaitzak aztertzeke eta interpretatzeko adostasunak.

- Nola eta noiz egingo da emaitzen azterketa sistematikoa?
- Nortzuk hartuko dute parte emaitzak aztertzeke eta interpretatzeko prozesuan?
- Zein tresna, adierazle edo iturri erabiliko dira azterketa egiteko?
- Zein adostasun finkatuko dira emaitzak modu koherentean interpretatzeko?
- Nola ziurtatuko da emaitzen interpretazioa hobekuntzara bideratua izango dela?

B— Ebaluazioaren ondorioa hezkuntza hobekuntza txertatzea.

- Nola eta noiz egingo dira hobekuntza proposamenak ebaluazioaren ondorioetatik abiatuta?
- Nork izango du ardura edo jarraipena proposamen horien garapenean?
- Zein prozesuren bidez neurtuko da proposatutako hobekuntzen eragina?
- Nola lotuko dira proposamenak ikastetxearen IHParekin eta urteko plangintzekin?

C— Nola partekatuko diren emaitzak eta datuak Hezkuntza Komunitatearekin.

- Nola partekatuko dira emaitzak eta datuak hezkuntza-komunitatearekin?
- Zer nolako gunea/k erabiliko dira horretarako (eskola kontseilua, bilera orokorrak...)?
- Nola sustatuko da emaitzen inguruko hausnarketa kolektiboa eta partekatua?
- Zer printzipio aplikatuko dira datuen erabilera arduratsua eta etikoa bermatzeko?

BESTE ESPARRU BATZUEN EBALUAZIOA

Galdera posibleak:

A— Irakasleen ebaluazioa

- Nola planteatzen da irakasleen ebaluazioa egitea ikastetxean?
- Zer mekanismo erabiliko dira irakasleen garapen profesionala bultzatzeko ebaluazioaren bidez (autoebaluazioa, koebaluazioak...)?
- Nola islatuko dira ebaluazio horren emaitzak prestakuntza eta hobetze planetan?

B— Zuzendaritza-taldearen ebaluazioa

- Zer mekanismo erabiliko dira zuzendaritzaren garapen konpetentziala bultzatzeko ebaluazioa (autoebaluazioa, koebaluazioak...)?
- Nola sistematizatuko dira zuzendaritzen arteko jardunbide egokien trukeak, mentoretzak edo prestakuntza ekintzak?

C — Ikastetxeko beste proiektuen, ikerketen, jardueren... ebaluazioa

- Ikastetxeko zein proiektu edo ekimen ebaluatuko dira modu sistematikoan IHParen barruan?
- Nola eta noiz egingo da ebaluazio hori, eta nortzuk izango dira arduradunak?
- Nola erabiliko dira emaitzak ikastetxearen hobekuntza eta berrikuntza sustatzeko?

D — ...

BERRIKUNTZAREN KULTURA

Galdera posibleak:

A— Ikerketa eta berrikuntza pedagogikoa

- Zein ikerketa edota berrikuntza pedagogikoko jarduera, proiektu edo ekimen garatzen ditu ikastetxeak?
- Zer nolako ikerketa edo analisi pedagogiko aplikatzen dira aldaketa metodologiko edo didaktikoak gidatzeko?
- Nola ziurtatzen da ikerketatik eratorritako ondorioak praktikan txertatzen direla?

B— Jardunbide egokiak eta esperientzia arrakastatsuak:

- Nola identifikatzen eta sistematizatzen ditu ikastetxeak jardunbide egokiak edo esperientzia arrakastatsuak eta nola partekatzen dira?
- Gure ikastetxeko zein proiektu, programa edo neurri ari dira esperimentazioa eta berrikuntza bultzatzen?
- Nola zabaltzen dira jardunbide egokiak, esperientzia positiboak... ikastetxe barruan edo kanpoan?
- Berrikuntza-arduradunak (BeA) nola koordinatzen dira zuzendaritza-taldearekin eta klaustroarekin beste eragile batzuekin...?



IHParen berrikusketa, doikuntza eta komunikazioa

③

 T.O. 25 Berrikusketa, doikuntza eta komunikazioa

IKASTURTEA

IHParen indarraldiari eusteko egindako komunikazio ekintzak:

1

Hezkuntza komunitateari ikasturte hasierako bileran komunikatu

2

Web orrian infografia berria txertatu laburpen gisa

3

...

Berrikusitako eta eguneratutako alderdiak (berrikusketa eta doikuntza):

DESKRIBAPENA	EGINDAKO ALDAKETAK
Berrikusketa hezkuntza komunitatearen batzordeak egin du, 20XX-20XX ikasturtean zehar. X datan bukatu da berrikuspena	Txertatutakoak: - - - -
JUSTIFIKAZIOA Ikastetxearen ekosisteman aldaketa ugari izan ditugu azken urteetan, besteak beste, ikasle eta familia berri kopurua asko handitu da...horrexegatik IHPa eguneroko egoerari erantzun egokitua emateko eguneratu da.	

LIBURU HONEK IKASTETXE BAKOITZAREN
AUTONOMIATIK ETA TESTUINGURUTIK ABIATUTA
IKASTETXEKO HEZKUNTZA PROIEKTUAREN
HELBURU PARTEKATUAK EZARTZEKO GIDA
OPERATIBOA ESKAINTZEN DU.

